

# HONDARRIBIKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

VI. Plangintzaldia  
2018-2022



HONDARRIBIKO UDALA

2019ko maiatza

# Aurkibidea

1. Sarrera .....	4.
2. Diagnosi Fasea: Hondarribiko Udal barneko euskararen egoeraren ebaluazioa .....	6.
2.1. Ikerlanaren unibertsoa eta erabilitako metodologia.....	6.
2.2. Langileen adina eta sexua .....	7.
2.3. Hizkuntza gaitasuna .....	8.
2.3.1. Adierazitako hizkuntza gaitasuna .....	8.
2.3.2. Hizkuntza eskakizunak .....	8.
2.4. Zerbitzu hizkuntza .....	9.
2.4.1. Erakundearen irudia.....	9.
2.4.2. Herritarrekin ahozko edota idatzizko harreman zuzena duten langileak .....	9.
2.4.3. Hizkuntza erabilera herritarrekiko ahozko harremanetan .....	10.
2.4.4. Herritarrek udal langileekin ahoz erabilitako hizkuntza .....	11.
2.4.5. Hizkuntza erabilera herritarrekiko idatzizko harremanetan.....	11.
2.4.6. Herritarrek erakundera bidalitako dokumentuetan erabilitako hizkuntza .....	12.
2.5. Lan hizkuntza .....	13.
2.5.1. Ahozko erabilera erakunde barneko zein kanpoko lanetarako .....	13.
2.5.2. Idatzizko erabilera erakunde barneko lanetarako .....	14.
2.5.3. Idatzizko erabilera erakunde kanpoko lanetarako .....	15.
2.5.4. Idatzizko sortze hizkuntza .....	16.
2.6. Prestakuntza .....	17.
2.6.1. Prestakuntzan parte hartutako langileak .....	17.
2.6.2. Prestakuntzan erabilitako hizkuntza .....	17.
2.6.3. Prestakuntzan jasotako hizkuntza.....	18.
2.7. Hizkuntza kudeaketa .....	18.
2.7.1. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza maila.....	18.
2.7.2. Lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideen betetze maila .....	19.
2.7.3. Euskararen erabilerak laneko komunikazioan izan duen bilakaera.....	19.
2.7.4. Erakundearen euskararen erabilerak izan duen bilakaera.....	19.
2.8. Diagnostikoaren emaitza nagusiak.....	21.



<b>3. Plangintza Fasea: Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Hondarribiko Udalean, 2018-2022 epealdia .....</b>	<b>24.</b>
3.1. Erabilera planaren helburu orokorra.....	24.
3.2. Udaleko administrazio atalen sailkapena .....	25.
3.2.1. Hondarribiko egoera soziolinguistikoa .....	25.
3.2.2. Hondarribiko Udalari dagokion helburu mailakatua .....	25.
3.3. Plangintzaren lehentasunezko helburuak eta aplikaziorako prozedura.....	27.
3.3.1. Lehentasunezko helburuak.....	27.
3.3.2. Eragin eremua .....	29.
3.3.3. Hondarribiko Udaleko administrazio atalen izaera eta lehentasunak .....	29.
3.3.4. Eragin-epea .....	30.
3.3.5. Planaren inplementaziorako prozedura eta oinarri metodologikoak .....	31.
3.4. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Jarraibideak.....	34.
3.5. Plan Estrategikoa 2018-2022: helburuak .....	43.
3.6. Eragin esparruak, helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak .....	48.
3.6.1. Eragin esparruak .....	48.
3.6.2. Hizkuntza gaitasuna .....	49.
3.6.3. Ahozko komunikazioak.....	52.
3.6.4. Idatzizko komunikazioak .....	54.
3.6.5. Itzulpenak .....	57.
3.6.6. Langileen prestakuntza orokorra.....	58.
3.6.7. Tresna eta aplikazio informatikoak.....	59.
3.6.8. Internet eta intranet sareak.....	60.
3.6.9. Argitalpenak .....	61.
3.6.10. Hizkuntza paisaia.....	62.
3.6.11. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak.....	63.
3.6.12. Diru-laguntzak .....	64.
3.6.13. Kontratazio administratiboak .....	65.
3.7. Plangintza bi hitzetan.....	66.
<b>Eranskinak.....</b>	<b>68.</b>
Adierazleen taula: Egitura eta adierazleen kalkulurako prozedura .....	68.
Adierazleen taula: Emaitzak .....	92.



# 1. SARRERA

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntz eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du; baita administrazioetako plantiletan bi hizkuntza ofizialen ezagutza derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen V. Titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erregelamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik, herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren oinarri ere badira.

Honi loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) euskal herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren helburu nagusia izan da administrazioaren giza bitartekoak arian - arian euskaraz ere jarduteko gaitzea.

Bigarren plangintzaldia araupetzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, aurreko plangintzan egindako ibilbideari jarraitu eta ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko oinarriak ezarri zituen. Dekretuak, gainera, araubidezko marko orokorra ezarri zuen administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintzaldiak eta epeak arautuz eta EAEko herri administrazioak bost urtealdirako planak egitera behartuz.

Horiek horrela, Hondarribiko Udalak udal barneko euskararen erabilera plana taxutzeko erabakia hartu zuen lehenengoz 1997ko ekainaren 24an. Lehenengo lana bideragarritasun txostena egitea izan zen, eta 1999ko apirilaren 29ko Osoko Bilkuran onartu zen txosten hura. Ondorio haietatik abiatuta, 2001eko irailaren 14ko Osoko Bilkuran Plana onartu zuen Udalak. Udaleko erabilera neurtzeko datu bilketa egin zen eta datu haietan oinarrituta, udal-langileentzako normalizazio ekintzak proposatu.



Plan horren haritik, egin beharreko datuk bilketak, komunikazio plana, udal barrurako nahiz kanporako hizkuntza irizpideen onarpena, eta abar burutu ondoren, langileriaren trebakuntzari ekin zitzaion, lehenetsitako ataletan eta jendaurreko lanpostuetan dihardutenei lehentasuna eman. Langileen hizkuntza trebakuntzarekin 2005 urtera arte edo aritu eta gero, ondorengo urteetan Udal barneko euskararen erabilera planak ez du hurbileko jarraipen lanik ezagutu.

Bestalde aipatu behar da Udalbatzak 2011ko abenduaren 20an egindako bilkuran onartu zuela Euskara Biziberritzeko 2011-2015 Plan Estrategiko berria eta bertan, aipatzen den esparruetako bat administrazioa dela eta helburu gisa honako hau aipatzen dela: Euskara Normalizatzeko Erabilera Plana administrazio barruan abian jarri, ezagutzatik erabilerara beste urrats bat eman dezan Hondarribiko udal administrazioak, horretarako dagozkion estrategiak eta ekintzak proposatuz.

2012ko maiatzaren 31an egindako Udalbatzan onartu zuen IV. Plangintzaldiari (2008-2012) zegokion Hondarribiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta 2013aren amaieran V. Plangintzaldiari zegokiona (2013-2017). V. plangintzaldia egon da indarrean epealdi horretan eta orain 2018-2022 epealdiko VI. Plangintzaldia definitzea dagokio Hondarribiako Udalari; horretarako, egungo egoeraren diagnosia ezagutu eta ebaluazioa egitea izan da lehen urratsa.

Eusko Jaurlaritzaren Bikain ziurtagiria eskuratzeko metodologia eta herri-administrazioek euskarari buruzko auto-diagnostikoa egiteko Eusko Jaurlaritzak berak proposatutako metodologia uztartu dira euskararen egoeraren ebaluazioa egiteko. Metodologia horren bidez, erakunde guztiek eskura dute azterketa konparagarriak egiteko eredu bateratu bat. Izan ere, herri administrazio bakoitzak metodologiari iruditzen zaizkion aldaketak egiteko aukera izan arren, datuak bateragarriak eta alderagarriak izan daitezten, administrazio guztiek adierazle berberak erabiltzea proposatu du Eusko Jaurlaritzak. Gainera, EAE mailan jada egindako ebaluazio orokorreko emaitzekin alderatu ahal izango da Hondarribiko Udalez ateratako "argazki" hau.

Egoeraren diagnosiaren berri emateaz gain, txosten honen helburua da, Hondarribiako Udalak onartu beharreko plangintzaldi berrirako (VI. Plangintzaldia, 2018-2022), Hondarribiko Udalaren hizkuntza normalkuntzarako lan-ildo eta lehentasunak zein izango diren ere zehaztu eta jasotzea.

## **2. DIAGNOSI FASEA: HONDARRIBIKO UDAL BARNEKO EUSKARAREN EGOERAREN EBALUAZIOA**

### **2.1. Ikerlanaren unibertsoa eta erabilitako metodologia**

Datu-bilketarako landa-lana bi fasetan egin da. Hondarribiko Udaleko lanpostu zerrendako langileak izan dira, hasiera batean, azterketa honetarako lan unibertsoa: 65 guztira. Bigarren fase batean lanpostu zerrendatik kanpoko gainerako langileengana ere jo dugu informazio eske. Guztira, 111 langilek osatu dute, finean, unibertsoa. Guztiei bidali zaie informazio bilketarako galdetegia.

Siadecok, “Euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintzaldiaren amaiera ebaluaziorako” espezifikoki diseinaturiko galde-sorta egituratua da erabilitakoa, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailburuordetzarentzat diseinatutako galdetegia hain zuzen ere.

Hala ere, Udaleko teknikariarekin adostuta, HPSrako diseinatutako langileen galde-sorta moldatu egin da, langileei inkesta betetzeko lana arindu asmoz, hainbat galdera kenduz.

On line betetzeko zailtasunak izan diren kasuetan, galdesorta paperean betetzeko aukera ere eskaini da.

Guztira 104 langileren datuekin osatu da jarraian aurkeztutako diagnostikoa. Honela, errore-marjina estatistikoa orokorra,  $\pm 5,22$  da, %95eko konfiantza tarterako ( $p=q=0.5$  izanik ausazko laginketa sinplerako).

Honetaz gain, adierazle taulan txertatu egin dira EAeko V. Plangintzaldiaren amaiera ebaluaziorako, Hondarribiko Euskara Teknikariak emandako erantzunak eta datuak.

Erantzunen bilketarako landa lanaren lehen fasea 2018ko irailaren 9tik urriaren 2ra bitartean garatu da eta bigarrena 2019ko apirilaren 2tik 26ra.

## 2.2. Langileen adin-tartea eta sexua

1.Taula: Galdesorta erantzun duten langileen adin-tartea

	Kop	%
<=35 urte	19	18,3
36-45 urte	33	31,7
46-55	33	31,7
56-65	17	16,3
Ez du erantzun	2	1,9
Guztira	104	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

2. Taula: Galdesorta erantzun duten langileen sexua

	Kop	%
Emakumezkoak	53	51,0
Gizonezkoak	51	49,0
Guztira	104	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

## 2.3. Hizkuntza gaitasuna

### 2.3.1. Hizkuntza eskakizunak

3. Taula: Udal langileek gainditutako HE, okupatutako lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren eta lanpostuak derrigorrezko datarik ote duen arabera

	Gainditutako HE		Lanpostuaren HE					Guztira
			0	1	2	3	4	
Derrigorrezko data= BAI	Gainditutako HE	0			1	1		2
		2			16	1	1	18
		3			7	12	1	20
		4			1	3	2	6
	Guztira			25	17	4	46	
Derrigorrezko data = EZ	Gainditutako HE	?		1	4			5
		0	1	4	1			6
		2		1	3			4
		4					4	4
	Guztira	1	6	8		4	19	
Guztira	Gainditutako HE	?		1	4			5
		0	1	4	2	1		8
		2		1	19	1	1	22
		3			7	12	1	20
		4			1	3	6	10
	Guztira	1	6	33	17	8	65	

Iturria: Hondarribiko Udala. 2018

### 2.3.2. Adierazitako hizkuntza gaitasuna

4. Taula: Ezagutza aitortua: Zein da zure euskara maila ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko?

	Ulertu		Hitz egin		Irakurri		Idatzi	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Ezer ez					1	1,0	2	1,9
Hitz batzuk	1	1,0	2	1,9	0	,0	2	1,9
Zertxobait	1	1,0	2	1,9	3	2,9	8	7,7
Nahiko ongi	12	11,5	18	17,3	18	17,3	22	21,2
Ongi	90	86,5	82	78,8	81	77,9	68	65,4
Zehaztu gabe					1	1,0	2	1,9
Guztira	104	100,0	104	100,0	104	100,0	104	100,0

Iturria: Siadeco, 2019



## 2.4. Zerbitzu hizkuntza

### 2.4.1. Erakundearen irudia

5. Taula: Erakundearen irudia: Hizkuntza erabilera udalaren irudiko elementuetan

	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz +ele bietan	Kontuan hartutako elementu/hedabideak
	%	%	%	%	
Eraikinetako errotulazio orokorraren hizkuntza egoera	0,0	0,0	100,0	100,0	
Erakundearen irudi korporatiboko elementuen hizkuntza egoera	0,0	30,0	70,0	100,0	1. Hondarribia aldizkaria 2. Artxiboko memoria 3. Gizarte Zerbitzuetako memoria 4. Xenda ibilbideak 5. Diptikoak
Erakundea beraren paper edizioko argitalpenen hizkuntza egoera:	0,0	50,0	50,0	100,0	1. Diario Vasco 2. Noticias de Gipuzkoa 3. Hitza Oarso-Bidasoa 4. Argia 5. ETB
Hedabideen bitartez zabaldutako iragarki eta publizitatearen hizkuntza egoera	50,0	30,0	20,0	50,0	
Ingurune digitaleko euskarrien hizkuntza egoera:	0,0	20,0	80,0	100,0	

Iturria: Hondarribiko Udala, 2018

### 2.4.2. Herritarrekin ahozko edota idatzizko harreman zuzena duten langileak

6.Taula: Zein maiztasunez dituzten Hondarribiko udal langileek ahozko eta idatzizko ondorengo harremanak

	Herritarrekin ahoz				Herritarrekin bilera edo aurkezpenetan		Herritarrek erakundearen aurkeztutako idatziak irakurri		Herritarrentzako dokumentu edo idatzi ofizialik idatzi	
	Telefonoz		Aurrez aurre							
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Egunero	65	62,5	67	64,4	4	3,8	39	37,5	29	27,9
Astero	21	20,2	18	17,3	9	8,7	32	30,8	20	19,2
Hamabostean behin	3	2,9	4	3,8	3	2,9	9	8,7	2	1,9
Hilean behin	1	1,0	3	2,9	6	5,8	3	2,9	9	8,7
Hilean behin baino gutxiagotan	6	5,8	7	6,7	13	12,5	8	7,7	14	13,5
Inoiz ez	8	7,7	5	4,8	69	66,3	13	12,5	30	28,8
Guztira	104	100,0	104	100,0	104	100,0	104	100,0	104	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

### 2.4.3. Hizkuntza erabilera herritarrekiko ahozko harremanetan

7. Taula: Udal langileen hizkuntza ohiturak herritarrekiko harremanetan (telefono bidez, aurrez aurre eta bilera/aurkezpenetan)

	Harrera telefonoz egiterakoan erabilitako hasierako hizkuntza		Telefono bidezko komunikazioak osotasunean hartuta, hasieratik bukaerara, erabilitako hizkuntza		Aurrez aurreko harremanean, langileak erabilitako hasierako hizkuntza		Aurrez aurreko komunikazioak osotasunean hartuta, hasieratik bukaerara, erabilitako hizkuntza		Ahozko harremana euskaraz izatea nahiago dutenekin langileak erabilitako hizkuntza		Herritarrekiko bilera edo aurkezpenetan erabilitako hizkuntza	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Beti edo ia beti gaztelaniaz (0,1)	2	2,1	1	1,0	2	2,0	3	3,0	2	2,0	1	2,9
Gaztelania euskara baino gehiago (2,3,4)	3	3,1	18	18,8	1	1,0	14	14,1	-	-	4	11,4
Euskara gaztelania bezainbeste (5)	8	8,3	31	32,3	8	8,1	26	26,3	7	7,1	5	14,3
Euskara gaztelania baino gehiago (6,7,8)	6	6,3	32	33,3	24	24,2	45	45,5	13	13,1	20	57,1
Beti edo ia beti euskara (9,10)	77	80,2	14	14,6	64	64,6	11	11,1	77	77,8	5	14,3
Guztira harreman mota hori dutenak	96	100,0	96	100,0	99	100,0	99	100,0	99	100,0	35	100,0
Batez beste euskararen erabilera (0tik 10erako eskalan)	8,82		5,84		8,41		6,04		8,86		6,46	

Iturria: Siadeco, 2019

#### 2.4.4. Herritarrek udal langileekin ahoz erabilitako hizkuntza

8. Taula: Herritarren hizkuntza ohiturak

	Herritarrek, harrera telefonoz egitean erabilitako hasierako hizkuntza		Herritarrek, aurrez aurreko harremanean erabilitako hasierako hizkuntza	
	Kop	%	Kop	%
Beti edo ia beti gaztelaniaz (0,1)	-	-	2	2,0
Gaztelania euskara baino gehiago (2,3,4)	25	26,0	17	17,2
Euskara gaztelania bezainbeste (5)	36	37,5	31	31,3
Euskara gaztelania baino gehiago (6,7,8)	30	31,3	40	40,4
Beti edo ia beti euskara (9,10)	5	5,2	9	9,1
Guztira harreman mota hori dutenak	96	100,0	99	100,0
Batez beste euskararen erabilera (0tik 10erako eskalan)	5,36		5,82	

Iturria: Siadeco, 2019

#### 2.4.5. Hizkuntza erabilera herritarrekiko idatzizko harremanetan

9. Taula: Idatzizko erabilera. Langileak, herritarrei bidalitako dokumentuetan erabilitako hizkuntza: euskaraz soilik eta euskaraz eta elebietan bidalitako ehunekoak

	Langileak lanean herritarrei bidalitako dokumentu edo idazki ofizialak zein hizkuntzatan iristen zaizkie (norberak idatzita edo beste norbaitek itzulita)				Langileak berak idatzita edo beste norbaitek itzulita, zein hizkuntzatan erantzuten zaie herritarrek erakundera euskaraz aurkeztutako idatziei			
	Euskaraz soilik		Euskaraz eta bietara		Euskaraz soilik		Euskaraz eta bietara	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
%0-%20 artean	56	83,6	5	7,5	38	55,9	4	5,9
%21-%40 artean	4	6,0	1	1,5	2	2,9	2	2,9
%50-%60 artean	4	6,0	7	10,4	3	4,4	2	2,9
%61-%80 artean	2	3,0	4	6,0	4	5,9	2	2,9
%80tik gorakoa	1	1,5	50	74,6	21	30,9	58	85,3
Guztira	67	100,0	67	100,0	68	100,0	68	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

10. Taula: Idatzizko erabilera. Zerbitzu hizkuntza. Herritarrei bidalitako dokumentuetan erabilitako batez besteko hizkuntza

	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz+ele bietan	Harremana duten langileak
	%	%	%	%	Kop
Langileak lanean herritarrei bidalitako dokumentu edo idazki ofizialak zein hizkuntzatan iristen zaizkie (norberak idatzita edo beste norbaitek itzulita)	14,72	10,88	74,40	85,28	67
Langileak berak idatzita edo beste norbaitek itzulita, zein hizkuntzatan erantzuten zaie herritarrek erakundera euskaraz aurkeztutako idatziei	9,41	39,65	50,94	90,59	68

Iturria: Siadeco, 2019

#### 2.4.6. Herritarrek erakundera bidalitako dokumentuetan erabilitako hizkuntza

11. Taula: Idatzizko erabilera: herritarrek udalera bidalitako dokumentuetan erabilitako batez besteko hizkuntza

	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz+ele e bietan	Harremana duten langileak
	%	%	%	%	Kop
Herritarrek erakundearen aurkeztutako idatzien batez besteko hizkuntza	56,49	31,18	12,32	43,51	87

Iturria: Siadeco, 2019

## 2.5. Lan hizkuntza

### 2.5.1. Ahozko erabilera erakunde barneko zein kanpoko lanetarako

12. Taula: Udal langileen hizkuntza ohiturak erakunde barneko zein kanpoko lanetarako

	Lankideekin erabilitako hizkuntza		Lan bilerak egiten dituzten hizkuntza		Erakundeko ordezkari politikoekin erabilitako hizkuntza		Beste herri erakundeetako kideekin erabilitako hizkuntza		Kontratutako enpresa/entitate pribatuetako kideekin erabilitako hizkuntza	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Beti edo ia beti gaztelaniaz (0,1)	4	3,8	4	4,3	3	3,4	4	4,7	3	3,8
Gaztelania euskara baino gehiago (2,3,4)	11	10,6	16	17,4	4	4,5	5	5,9	11	13,8
Euskara gaztelania bezainbeste (5)	21	20,2	14	15,2	4	4,5	8	9,4	21	26,3
Euskara gaztelania baino gehiago (6,7,8)	40	38,5	26	28,3	26	29,2	29	34,1	26	32,5
Beti edo ia beti euskara (9,10)	28	26,9	32	34,8	52	58,4	39	45,9	19	23,8
Guztira harreman mota hori dutenak	104	100,0	92	100,0	89	100,0	85	100,0	80	100,0
Batez beste euskararen erabilera (0tik 10erako eskalan)	6,79		6,68		8,04		7,55		6,41	

Iturria: Siadeco, 2019

Hondarribiko Udaleko ordezkariak adierazitakoaren arabera, udaleko ordezkari politiko guztiak gai dira, bai euskaraz ulertzeko, baita hitz egiteko ere.

## 2.5.2. Idatzizko erabilera erakunde barneko lanetarako

13. Taula: Idatzizko erabilera. Langileak, barneko lan harremanetan erabilitako hizkuntza: euskaraz soilik eta euskaraz eta elebietan idatzitako ehunekoak

	Erakunde barnerako agiri eta dokumentu ofizialak, zein hizkuntzatan idazten dira (langileak idatzita edo beste norbaitek itzulita)				Lan bileretako dokumentu idatziak zein hizkuntzatan egoten dira			
	Euskaraz soilik		Euskaraz eta bietara		Euskaraz soilik		Euskaraz eta bietara	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
%0-%20 artean	36	62,1	8	13,8	32	52,5	9	14,8
%21-%40 artean	2	3,4	3	5,2	6	9,8	4	6,6
%50-%60 artean	5	8,6	3	5,2	5	8,2	4	6,6
%61-%80 artean	3	5,2	0	0,0	4	6,6	4	6,6
%80tik gorakoa	12	20,7	44	75,9	14	23,0	40	65,6
Guztira	58	100,0	58	100,0	61	100,0	61	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

14. Taula: Idatzizko erabilera. Lan hizkuntza. Erakunde barnerako eta lan bileretako dokumentuetan erabilitako batez besteko hizkuntza

	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz + ele bietan	Harremanaduten langileak
	%	%	%	%	Kop
Erakunde barnerako agiri eta dokumentu ofizialak, zein hizkuntzatan idazten dira (langileak idatzita edo beste norbaitek itzulita)	19,98	31,97	48,05	80,02	58
Lan bileretako dokumentu idatziak zein hizkuntzatan egoten dira	22,62	36,48	40,57	77,05	61

Iturria: Siadeco, 2019

### 2.5.3. Idatzizko erabilera erakunde kanpoko lanetarako

15. Taula: Idatzizko erabilera. Langileak, kanpoko lan harremanetan erabilitako hizkuntza: euskaraz soilik eta euskaraz eta elebietan idatzitako ehunekoa

	Zein hizkuntzatan bidaltzen diren komunikazioak beste herri erakundeetara (langileak idatzita edo beste norbaitek itzulita)				Zein hizkuntzatan bidaltzen diren komunikazioak erakundeak kontratatutako enpresa edo erakunde pribatuetara (langileak idatzita edo beste norbaitek itzulita)			
	Euskaraz soilik		Euskaraz eta bietara		Euskaraz soilik		Euskaraz eta bietara	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
%0-%20 artean	31	64,6	1	2,1	21	53,8	4	10,3
%21-%40 artean	2	4,2	1	2,1	6	15,4	1	2,6
%50-%60 artean	5	10,4	4	8,3	6	15,4	5	12,8
%61-%80 artean	3	6,3	3	6,3	3	7,7	8	20,5
%80tik gorakoa	7	14,6	39	81,3	3	7,7	21	53,8
Guztira	48	100,0	48	100,0	39	100,0	39	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

16. Taula: Idatzizko erabilera. Lan hizkuntza. Kanpo harremanak. Beste herri erakunde eta enpresa/erakunde pribatuetara bidalitako dokumentuetan erabilitako batez besteko hizkuntza

	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz + ele bietan	Harremana duten langileak
	%	%	%	%	Kop
Zein hizkuntzatan bidaltzen diren komunikazioak beste herri erakundeetara (langileak idatzita edo beste norbaitek itzulita)	9,58	26,88	63,54	90,42	48
Zein hizkuntzatan bidaltzen diren komunikazioak erakundeak kontratatutako enpresa edo erakunde pribatuetara (langileak idatzita edo beste norbaitek itzulita)	22,69	27,44	49,87	77,31	39

Iturria: Siadeco, 2019

Hondarribiko Udaleko ordezkariak adierazitakoaren arabera, EAEko beste herri erakundeetara bidali beharreko agiri eta dokumentuetan zein hizkuntza erabili, irizpideak ezarrita ditu udalak; eta praktikan, bidalitako dokumentuen %25 euskara hutsez bidaltzen dira, %70 ele bietan eta %5 gaztelania hutsez.

17. Taula: Idatzizko erabilera. Lan hizkuntza. Kanpo harremanak. Beste herri erakunde eta enpresa/erakunde pribatuetatik jasotako dokumentuetan erabilitako batez besteko hizkuntza

	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz + ele bietan	Harremana duten langileak
	%	%	%	%	Kop
EAEko beste herri erakundeetatik jasotako idatzizko komunikazioak zein hizkuntzatan jasotzen diren	11,01	21,81	67,25	89,06	69
Erakundeak kontratatutako enpresa/erakunde pribatuetatik jasotako idatziak zein hizkuntzatan jasotzen ditu langileak	56,33	25,23	18,44	43,67	48

Iturria: Siadeco, 2019

#### 2.5.4. Idatzizko sortze hizkuntza

18. Taula: Idatzizko erabilera. Langileen sortze hizkuntza: euskaraz soilik eta euskaraz eta elebietan sortutakoeh ehunekoak

	Langileak lanean idatzi beharreko dokumentuak zein hizkuntzatan idazten dituen (itzulpena eskatu gabe)				Lankideekiko komunikazio ez formalerako oharrak, zein hizkuntzatan sortzen dituen langileak			
	Euskaraz soilik		Euskaraz eta bietara		Euskaraz soilik		Euskaraz eta bietara	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
%0-%20 artean	43	48,3	19	21,3	18	22,0	8	9,8
%21-%40 artean	10	11,2	11	12,4	1	1,2	3	3,7
%50-%60 artean	7	7,9	10	11,2	11	13,4	10	12,2
%61-%80 artean	15	16,9	16	18,0	9	11,0	10	12,2
%80tik gorakoa	14	15,7	33	37,1	43	52,4	51	62,2
Guztira	89	100,0	89	100,0	82	100,0	82	100,0

Iturria: Siadeco, 2019



19. Taula: Idatzizko erabilera: sortze hizkuntza esparru formal eta informalean

	Gaztelaniaz	Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz + ele bietan	Harremana duten langileak
	%	%	%	%	Kop
Langileak lanean idatzi beharreko dokumentuak zein hizkuntzatan idazten dituen (itzulpena eskatu gabe)	39,66	38,40	22,49	60,90	89
Lankideekiko komunikazio ez formalerako oharrak, zein hizkuntzatan sortzen dituen langileak	21,74	67,06	11,20	78,26	82

Iturria: Siadeco, 2019

## 2.6. Prestakuntza

### 2.6.1. Prestakuntzan parte hartutako langileak

20. Taula: Azken 12 hilabeteetan, erakundeak antolatutako zenbat lan prestakuntza saio edota ikastarotan parte hartu duen langileak

	Kop	%
Bakar batean ere ez	76	73,1
Batean	15	14,4
Bi eta hiru artean	11	10,6
Hiru baino gehiagotan	2	1,9
Guztira	104	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

### 2.6.2. Prestakuntzan eskainitako hizkuntza

21. Taula: Euskaraz zenbat formazio saio egiteko aukera eskaini da (prestakuntzan parte hartutakoei soilik galdetu zaie)

	Kop	%
Bakar bat ere ez	7	25,0
Erdiak baino gutxiago	2	7,1
Erdiak baino gehiago	4	14,3
Guztiak	7	25,0
Ez dakit	8	28,6
Guztira	28	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

### 2.6.3. Prestakuntza jasotako hizkuntza

Hondarribiko Udalak ezarriak ditu Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak, eta Udaleko ordezkariaren iritziz, maila altuan betetzen dira hizkuntza irizpide horiek.

22. Taula: Zein hizkuntzatan jaso duen langileak formazioa (prestakuntzan parte hartutakoei soilik galdetu zaie)

	Kop	%
Gaztelania hutsean	7	25,0
Gaztelaniaz gehiago	7	25,0
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	5	17,9
Euskaraz gehiago	4	14,3
Euskara hutsean	5	17,9
Guztira	28	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

## 2.7. Hizkuntza kudeaketa

### 2.7.1. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza maila

23. Taula: Zenbateraino ezagutzen dituen langileak erakundearen hizkuntza irizpideak

	Kop	%
Asko	19	18,3
Nahikoa	51	49,0
Gutxi	28	26,9
Batere ez	6	5,8
Guztira	104	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

## 2.7.2. Lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideen betetze maila

24. Taula: Zenbateraino betetzen dituen langileak bere lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideak

	Kop	%
Asko	36	34,6
Nahikoa	50	48,1
Gutxi	9	8,7
Batere ez	1	1,0
Ez ditut ezagutzen	8	7,7
Guztira	104	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

## 2.7.3. Euskararen erabilerak laneko komunikazioan izan duen bilakaera

25. Taula: Duela bost urtetik hona, zure ahozko komunikazioetan gero eta euskara gutxiago ala gero eta gehiago erabiltzen duzu?

	Ahoz		Idatziz	
	Kop	%	Kop	%
Gero eta gutxiago	4	3,8	5	4,8
Gero eta gehiago	46	44,2	35	33,7
Berdin	52	50,0	62	59,6
Ed/Ee	2	1,9	2	1,9
Guztira	104	100,0	104	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

## 2.7.4. Erakundearen euskararen erabilerak izan duen bilakaera

26. Taula: Hondarribiko Udaleko ordezkariak erabilera planaz egindako ebaluazio kualitatiboa

Plangintzaldiko lorpenik garrantzitsuenak	Pixkanaka euskara lan hizkuntza gisa nagusitzen joan dadin lortzea.
Plangintzaldiko hutsunerik garrantzitsuenak	Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez duten langileak izatea.
Hurrengo plangintzaldirako erronkak	Udalak euskara hutsez funtzionatzea

Iturria: Siadeco, 2019

27. Taula: Zein balorazio egiten duen langileak erakundearen euskararen erabilerak duen bilakaeraz

	Kop	%
Oso negatiboa	1	1,0
Negatiboa	6	5,8
Ez negatiboa ez positiboa	30	28,8
Positiboa	55	52,9
Oso positiboa	10	9,6
Ed/Ee	2	1,9
Guztira	104	100,0

Iturria: Siadeco, 2019

28. Taula: Bilakaeraz egindako balorazioa, horretarako arrazoiak eta galde-sortan zehar adierazietako bestelako oharrak, hitzez hitz.

Bilakaeraz egindako balorazioa	Horretarako arrazoiak	Bestelako oharrak
Oso positiboa	Es el idioma que se usa en todas las relaciones	No sé euskera y no podré cumplir los requisitos
Oso positiboa	Euskararen sustapena nabaria delako	
Oso positiboa	Se está esforzando mucho por integrar la lengua	
Oso positiboa	Lankide guztiek beti euskaraz egiten dute	Apoyo a la realización de cursos de euskera a nivel de conversación para empleados públicos que no dominan el idioma.
Positiboa	Cada vez se habla más euskera en el Ayuntamiento de Hondarribia.	
Positiboa	El uso constante del euskera me da la fluidez que me faltaba y con ello se gana en confianza para aumentar más su uso.	
Positiboa	Gero eta gehiago erabiltzen delako	
Positiboa	Zenbat eta gehiago erabili, hobeto	
Positiboa	Saiakera egiten delako	Ahal duen neurrian euskaraz idazten du, baina gutxi
Positiboa	Elebitasuna lehenesten delako eta euskara gailentzen zaiolako gaztelaniari	
Positiboa	langile eta politikoen arteko harremanak gero eta euskaldunagoak direlako.	
Positiboa	Udaletxean, bai langileen artean eta baita politikoeekin ere, harremanetarako lehen hizkuntza euskara delako. Bileretan, eguneroko idatzietan (emailak, notak, etb) eta baita telefonoz ere, gure artean erabiltzen dugun hizkuntza euskara da.	Gipuzkoako itsasertzetako zerbitzu probintzietatik gaztelera hutsean jasotzen dira idatzi ofizialak.
Positiboa	Kanpoko jendearekin denetarik dago, baina euskaraz dakiena euskaraz hitz egin eta eskaraz erantzutea eskatzen du.	
Positiboa	Langile berriak sartzen jan ahala euskara maila ere sendotzen joan da, gazteagoak izanik ezagutza hobea dute eta	
Positiboa	Euskararen erabilerari bultzada emateko	

28. Taula: Bilakaeraz egindako balorazioa, horretarako arrazoiak eta galde-sortan zehar adierazietako bestelako oharrak, hitzez hitz.

Bilakaeraz egindako balorazioa	Horretarako arrazoiak	Bestelako oharrak
Positiboa	Pauso	
Positiboa	Saiatzen garelako euskara erabiltzen gehienetan idatziz eta ahoz euskaraz aritzen garelako, eta aurrera begira 1korra naiz, eramaten ari diren pauso eta sortzen diren dinamikekin	
Positiboa	orokorrean, euskara dakiten erabiltzaile eta profesionalekin euskaraz jarduten delako	Gure Euskara ikasteko, ikastaro edo akademiaren bitartez eta titulazioak lortzeagatik, ez ordaintzea.
Positiboa	Laneko hizkuntza euskara da, eta gaztelania erabiltzea salbuespena da (solaskideak euskaraz ez badaki edo ez badu menderatzen).	
Positiboa	Herritarrekin harremanean, lankideekin 1no gehiago erabiltzen da gaztelania, 1na herritarrak hizkuntza hori aukeratu duelako izan ohi da.	
Positiboa	Euskararen erabilera bultzatzen dutelako	
Positiboa	Gero eta gehiago erabiltzen dugu.	Hondarribiko euskaltegian ikasten dut. Administrazioak hizkuntz oso teknikoa erabili dut, eta herritar batzuek euskaraz hitz egiteko erabiltzen dute, 1na idazten behar dute, a
Positiboa	Beti euskaraz entzuten delako	Hiru hilabete besterik ez daramatza lanpostuan
Positiboa	Saiatzen gara langile/politikariak erabiltzen (ahoz zein idatziz)	
Positiboa	Ondo doalako eta erabiltzen delako. Ez dut aurkako ezer entzun	Abuztuan hasi zen udalean lanean Derecho a estudiar euskera en horas de trabajo como hicieron en su tiempo otras categorias profesionales.
Ez negatiboa ez positiboa		
Ez negatiboa ez positiboa	Hala uste dutelako	
Ez negatiboa ez positiboa	Benetan ezagutzen ez dudalako.	
Ez negatiboa ez positiboa	Llevo 2 meses trabajando, no puedo establecer una evolución.	
Ez negatiboa ez positiboa	???	
Ez negatiboa ez positiboa	Ez dudalako inolako aldaketarik nabaritu	
Ez negatiboa ez positiboa	Positiboa da dokumentuak, harreman ofizialak, harrera euskaraz direlako, baina lankideen arteko harreman pertsonal gehienek hizkuntza nagusia erdara da eta hori da positiboa ez dena.	
Ez negatiboa ez positiboa	Laneko hizkuntza gaztelera da oraindik askorentzat	Hizkuntza irizpideak gehiago zehaztu behar dira eta batez ere argitalpenei dagokienez. Langileek salto egin beharko lukete euskaraz funtzionatzera eta oraindik ez da lortu.

28. Taula: Bilakaeraz egindako balorazioa, horretarako arrazoiak eta galde-sortan zehar adierazietako bestelako oharrak, hitzez hitz.

Bilakaeraz egindako balorazioa	Horretarako arrazoiak	Bestelako oharrak
Ez negatiboa ez positiboa Ez negatiboa ez positiboa Ez negatiboa ez positiboa Ez negatiboa ez positiboa Ez negatiboa ez positiboa Ez negatiboa ez positiboa	Ez dudalako ongi ezagutzen. Denbora gutxi daramat lanean hemen Batzuetan benetakoa da , bestetan itxurakeria. Ez dut uste Euskararen erabileraren aldeko apustua erabatekoa denik Ez dut bilakaerarik ikusten Urte bete bakarrik daramat hemen lanean	Euskara serio hartuz gero, Euskal herria aspaldi euskalduna izango zen. Borondate falta.
Ez negatiboa ez positiboa	Ez dut bilakaerarik ikusi	Txostenak elebitan egitea denbora bikoitza eskatzen du. Beraz, denbora galera bat sortzen da teknikarientzat, eta herritarren eskaeretan ere. Eskaera orrietan zein hizkuntzatan jaso nahi den erabakitzeak aukera egon beharko litzateke.
Ez negatiboa ez positiboa Negatiboa	Se podría usar más Hay mucha gente que no habla euskera	
Negatiboa	Euskara irizpideak ez dira aintzat hartzen askotan, ez daude oso present eguneroko lanean	Erabileran ez ezik idatzizkoan ere gabeziak daudelakoan nago, egunerako testu laburrak idazterako (posta elektronikoa mezuak idazterakoan,...) akats asko egiten direlakoan nago.
Negatiboa	Azken urte hauetan ez da asko aurreratu arlo honetan. Euskararen jakintza oso altua da baina erabilera eskasa langileen artean.	Legeak ematen duen aukerak aprobetxatu ezker euskararen egoera hobetuko zen. Plangintza gehiegi egin dira eta denak kajoian daude.
Negatiboa	Kontratututako enpresetako langileei euskara profil batzuk eskatzen zaizkien bitartean, udalean langile batzuk badude beren lan mailari dagokion hizkuntza eskakizuna ez dutenak (papera) eta okerragoa dena, mailarik ez dutenak eta hauei buruz ez da hitz egiten.	Udaletxeko ikerketa bati buruzko informazioa biltzeko ez zait nire email pertsonalera idaztea normala iruditzen, nik dakidala, ez diot Euskara arloari hori egiteko 1menik eman
Negatiboa	Iruditzen zait hitzetatik ekintzara arrakala dagoela oraindik. Esaterako, dokumentuak gaztelania hutsean egiten dira, gerora euskaratzeko, batzuetan gainera nahiko era prekarioan.	
Negatiboa Oso negatiboa	Jende berriak gaztelaniarazko joera dauka Ez da erabiltzen	

## 2.8. Diagnostikoaren emaitza nagusiak

### Langileen euskara gaitasuna

- Hondarribiko Udaleko lanpostu zerrendako lanpostuetan dauden 65 langiletik 52k, bostetik lauk, badute bigarren hizkuntza eskakizuna edo handiagoa. Are, ezarritako langileek baino gehiagok dituzte hirugarren eta laugarren eskakizunak: 25ek behar dituzte, eta 30ek dauzkate egiaztatuta.
- Langileekin egindako inkestaren arabera —104 langileren erantzunak jaso dira—, euskararen ulermena erabat bermatuta dago: zazpi langiletik seik ongi ulertzen dute euskara, eta batek, nahiko ongi. Hitz egiteari eta irakurtzeari dagokionez, apalxeagoa da portzentajea, baina ia denek dakite ongi edo nahiko ongi: hizketan, %96k; irakurtzen, %95ek. Idazketarena da traba handienak dituen trebetasuna, nahiz eta hor ere gehienek, zazpitik seik, ongi edo nahiko ongi ikusten duten beren burua. %12k diote maila apala dutela.

### Zerbitzu hizkuntza

- Udalaren irudiari dagokionez, euskararen presentzia bermatuta dago errotulazioan eta irudi korporatiboan, baita erakundearen beraren papereko argitalpenetan eta ingurune digitaleko euskarrietan ere. Publizitatean dago hutsunea: erdia, erdara hutsez.
- Herritarrekiko ahozko harremanetan, langileen artean hedatua dago lehen hitza euskaraz egiteko ohitura, baina badira ñabardura batzuk. Batetik, esparruaren arabera: telefonoan, hamar langiletik zortzik egiten dute beti euskaraz lehen hitza (%80), baina aurrez aurreko harremanetan, hirutik bik (%65). Deigarriagoa da diferentzia hori, kontuan hartuta herritarren erabilera telefonoan baino handiagoa dela aurrez aurrekoan, langileek eurek emandako datuen arabera. Bestetik, kontuan izatekoa da arreta euskaraz eskatzen duten herritarrei ez dietela beti hala erantzuten: hamarretik zortzik, bai, beti erantzuten diete euskaraz hala nahi duten herritarrei (%78), baina bostetik batek erdaraz erantzuten dute tarteka (%20). Hizkuntza eskubideen gaiari eragiten dio horrek.
- Herritarrekin idatziz dituzten harremanei dagokienez, hedatua dago ele bietan jardutea, baina badira gorabeherak arlo horretan ere. Hamarretik zazpik dute ohitura gehienbat bi hizkuntzetan edo euskaraz bidaltzeko idazkiak (%85), baina hamar langiletik batek

erdara hutsez egiten ditu agiri gehienak (%15). Herritarrek euskaraz aurkeztutako agiriei nola erantzuten zaien, handiagoa da ele bietara edo euskaraz bidaltzen dituzten langileen portzentajea (%90), baina hamarretik batek erdaraz erantzun ohi die herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei (%9). Herritarrek eurek zer hautu egiten duten, gaztelaniaz jotzen dute udalera herritar gehienek (%56); ahozko harremanetan baino txikiagoa da, beraz, euskararen erabilera idatziz.

## Lan hizkuntza

- Ahozko erabilerari dagokionez, alde adierazgarria dago mintzakidearen arabera. Erakundeko arduradunekin erabiltzen dute langileek euskara gehien (%80, batez beste), eta beste erakunde batzuetako kideekin (%75). Harreman formalak izan ohi dira horiek. Aldiz, eguneroko harreman handiena dutenekin, lankideekin, gutxiago egiten dute euskaraz: %68 inguru. Are gutxiago enpresetako kideekin (%64); kasu horretan, kontuan izan behar da enpresa gehienek ez dutela hizkuntza eskakizunik eta irizpiderik.
- Idatzizko harremanetan errotua dago elebitasuna erakunde arteko harremanetan (%64 bidali, %67 jaso) eta udal barruko agiri ofizialetan (%48). Kasu horietan, gainera, hizkuntza bakarrean egitekotan, gehiago egiten dituzte euskaraz. Lan bileretarako barne dokumentuan, berriz, pisu gutxiago dauka elebitasunak (%41), eta gehienak hizkuntza bakar batean egoten dira: %36 euskaraz, %23 gaztelaniaz. Euskarazkoak gehiago dira, baina kontuan izan behar da agiri ofizialetatik lan bileretarako diferentzian aurrerapen handiagoa egiten duela gaztelaniak. Harremanik erdaldunduena enpresekikoa da; udalak berak agirien erdiak bidaltzen ditu ele bietan enpresetara (%50), laurdenak baino gutxiago gaztelaniaz (%23) eta laurdenak baino gehiago euskaraz (%27); hortaz, gaztelaniazko agiriak erakundeetara bidalitakoen bikoitza baino gehiago dira. Enpresek eurek are jardun erdaldunagoa dute udalera bidalitako idazkietan: erdara hutsez bidaltzen dituzte erdiak baino gehiago (%56).
- Elebitasuna errotuta dago erakundeak bidalitako dokumentuetan, baina hori itzulpenaren bidez bermatzen da askotan: dokumentuen ia laurdenak sortzen dituzte bi hizkuntzetan (%22). Gehiago dira gaztelaniaz bakarrik egindakoak (%40). Adierazgarria da, gainera, ofizialak ez diren idazkietan, agiri ez-formaletan, euskaraz sortutakoak direla gehienak, hirutik bi. Idatzizko harremanei dagokienez, beraz, udaleko lan jarduna nabarmen erdaldunagoa da informala baino.



## Prestakuntza

- Azken urtean prestakuntza langileen gutxiengo batek jaso du, lautik batek. Eskaintzari buruz azaldu dute euskarazkoa handiagoa dela (%32 gaztelaniaz, %39 euskaraz), baina hirutik ia batek ez daki eskaintza zein hizkuntzako den. Ikastaroetan parte hartu dutenen erdiek gehienbat erdaraz egin dituzte ikastaroak (%50), eta laurdenek pasatxok, batez ere euskaraz (%32). %18k, bi hizkuntzetan paretsu.

## Hizkuntza kudeaketa

- Erakundearen ezarritako hizkuntza irizpideak ezagutzen dituzte langile gehienek, hirutik bik. Beste herenek, berriz, ezagutza txikia dute. Betetze mailari dagokionez, ikuspegi baikorragoa dute beharginek: bostetik lauk diote asko edo nahikoa betetzen direla — hau da, datu horien arabera, ezagutza maila baino handiagoa da betetze maila—.
- Eboluzioari dagokionez, langileen erdiek baino gehiagok ez dute pauso esanguratsurik sumatu udalean, berdintsu ikusten dute euskararen egoera (%50 ahozkoan eta %60 idatzizkoak). Aldea ikusi dutenen kasuan, askoz gehiago dira aurrerapausoa nabari dutenak: %44k diote aurrera egin dela ahozkoan eta %34k idatzizkoan, eta %4-5ek, berriz, atzera egin dela.
- Udaleko ordezkariak adierazi du “pixkanaka” ari direla lan hizkuntzaren arloan pausoak ematen, euskara nagusitzen, eta helburutzat jarri du udalak erabat euskaraz funtzionatzea. Horri dagokionez, hutsune bat seinalatu du: hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabeko langileak izatea udalean.
- Langileen balorazio dagokionez, baikorra da gehienentzat. Bostetik hiruk positibotzat edo oso positibotzat jo dute udalean euskararen erabilerak izandako bilakaera (%62). Hamarretik batera ez dira iristen aurkako iritzia dutenak (%7). Herenek ez dute aldaketa handirik sumatu. Bilakaera ontzat jo dutenek nabarmendu dute udaleko kideak ahalegina egiten ari direla euskararen erabilera areagotzen, harremanak euskalduntzen ari direla, eta hori sendotu egin dela langile berriak sartzearekin. Ezkorrenek, berriz, erabilera baxuaz ohartarazi dute, langile askok ez dutela erabiltzen; horrekin batera, kritikatu dute euskara indartzeko bideak ez direla egoki baliatzen. Erdian daudenek, berriz, bi alderdiak uztartu dituzte: aitortu dute aurrerapausoak eman direla zenbait alderditan, baina ohartarazi dute erdara erabiltzeko joera handia dela oraindik ere.

### **3. PLANGINTZA FASEA:**

## **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Hondarribiko Udalean, 2018-2022 epealdia**

#### **3.1. Erabilera Planaren helburu orokorra**

Hondarribiko Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea da euskara plan honen helburu nagusia, bai zerbitzu-hizkuntza, bai lan-hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara plan honen helburu estrategikoek, helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

- Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntz eskubideak errespetatuz.
- Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.
- Euskara administrazio barneko lan-hizkuntza izan dadin bermatzea.

Aurreko hiru ildo horietatik hirugarrenean jarri behar da arretarik gehien, administrazioan euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain, euskaraz lan egin daitekeela sinetsi behar baitu Hondarribiko Udalak. VI. Plangintzaldi honetarako ahalegin berezia egin nahi da helburu horretan, orain artekoak baino aurrerapauso nabarmenagoak erdietsi nahi dira. Eta guzti hori, Udal osoaren zeregina da, udal langileena eta baita udal ordezkari politikoena ere. Euskararen erabilera hiritarrekiko komunikazioekin edo jendaurrean dauden lanpostuekin soilik lotzea, euskararen normalizazioan Hondarribiko Udalak aurrera pausu berriak emango baditu, gainditu beharreko egoera da. Ildo beretik, udal langileek euskaraz lan egiteak lan bikoizketa ekarriko diela pentsatzea ere gauza normala da eta horrelakorik gerta ez dadin, irizpide, neurri eta baliabide egokien aurreikuspen bat egitea guztiz beharrezkoa da.

Udal enplegatuen hizkuntza gaitasuna altua da baina herri administrazio askotan bezala, Hondarribiko Udalean ere or ohar ez da asmatu langileen hizkuntza-gaitasuna eguneroko lanean egoki islatzen. Horixe beraz, hemendik aitzina normaldu beharrezkoa: euskara, gaztelaniarekin batera zerbitzu hizkuntza izatea eta gero eta neurri handiagoan, udaleko lan-hizkuntza.

## 3.2. Udaleko administrazio atalen sailkapena

### 3.2.1. Hondarribiko egoera soziolinguistikoa

Indarrean dauden azken datu ofizialen arabera (Eustat, 2016), 10 herritarretatik 6 (% 63,7) euskalduna da, % 16,0 ia-euskaldunak dira (euskara ulertu bai baino ongi hitz egiteko gai ez direnak) eta % 20,3 erdaldunak.

Datu demografikoei erreparatuta, 2016an 17.092 biztanle zituen herriak eta beraz 10.900 herritar euskaldun inguru.

Eustatek argitaratutako 2016ko datuei erreparatuta, oso adierazgarria da hondarribiarren % 46aren ama hizkuntza edo lehen hizkuntza gaztelania dela, euskara % 39rena, biak % 11rentzat eta gainerako % 4arena beste hizkuntza bat.

Etxeko erabilerari dagokionean berriz, laurden bat pasatxok (% 29) erabiltzen du euskara etxean, erdia baino gehiagok gaztelania (% 50) eta bi hizkuntzak % 17k; gainerakoa beste hizkuntzei dagokiena da, % 2,8.

Eskola bidezko transmisio kulturalaren garrantzia handia da Hondarribian, etxeko harremanetan gaztelaniaren erabilera nagusitu arren, hein handi batean ikastetxeei esker lortzen baita gaur egun 30 urte arteko haur eta gazte gehienek euskara ikatea.

### 3.2.2. Hondarribiko udalari dagokion helburu mailakatua

86/1997 Dekretuan (apirilaren 15ekoa euskaren erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena) administrazio-atalen izaeraren araberako hurrengo sailkapena jasotzen da:

- **Jendaurreko atala:** beren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuaerakiko harremanetan oinarritzen denean.
- **Gizarte-izaerako atala:** herri-administrazioaren harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte-mailakoak direnean.
- **Atal Orokorra:** bere zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.



- **Atal berezia:** atal berezizat joko da bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten atal zein zerbitzuak. Gehienetan, eskuz egindako lanak burutzen dituzte, besteak beste, eraikinen mantenu- eta kontserbazio-lanetan, obra, garbiketa eta abarretan.

2001eko irailaren 14an Hondarribiko Udalak onartutako Erabilera Planaren arabera, hirugarren helburu mailakatua zegokionez, Udaleko atal guztiak, atal elebidun izendatuak daude, izaera bereziko ataletakoak salbu. 86/1997 Dekretuak ematen duen definizioari jarraituz, beren zereginak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarriak eta 5. Artikuluak ezarritakoaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua, dagoeneko 6. plangintzaldian dago, 2018ko urtarrilean hasi eta 2022ko abenduaren 31n bukatuko dena.

Derrigor bete beharreko indizea 2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitza Estatistikan euskararen ezagutza mailari buruz jasotako datuetatik aterako da, beraz, indarrean dagoen araudia betez, Hondarribiko Udalarik dagokion derrigortasun-indizea "euskaldunak + (ia euskaldunak/2)" % 71,68koa da.

Hortaz, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera, 4. helburu mailakatua betetzea dagokio 6. Plangintzaldirako, eta euskarazko administrazio atalak ezartzea, alegia, bere zereginetan batez ere euskaraz aritzen diren administrazio atalak izatea.

### 3.3. Plangintzaren lehentasunezko helburuak eta aplikaziorako prozedura

#### 3.3.1. Lehentasunezko helburuak

Lanerako hizkuntza gisa, Hondarribiko Udalaren jardueran euskarari bultzada berri bat eman eta euskara indartzea da plangintza honen helburu nagusia; Udalaren lan-betebeharretarako, euskara gero eta hizkuntza operatiboagoa eta erabiliagoa izatea. Helburu nagusi horri loturik, honakoak dira plangintza honi ezartzen zaizkion lehentasunezko helburuak:

##### 1 Udal langileei, Udalaren barne komunikazioetarako hizkuntza irizpide argiak ematea:

Euskara Hondarribiko Udalak lanerako gehiago erabiliko badu eta langileek euskaraz lan egin, zehaztu egin behar da zein lan-jardun gauzatzeko erabiliko den euskara, nola, zeinekin eta noizko.

Komunikazio zirkuluko langile guztiak edo ia guztiak euskaldunak izanagatik, gaztelaniaz mintzatzeko inertzia badira Hondarribiko Udaleko zenbait zerbitzutan. Hizkuntza jokabide horiei aurre egitea zail da, batez ere harreman horiek aspaldikoak direnean; baina Udalaren idatzizko lanean euskarari erabateko lehentasuna emango balitzaio eta lan egiteko lehen hizkuntza bihurtu, ahoz ere euskara gehiago erabiltzea ekarriko luke neurri horrek.

Udal mailakoak diren hizkuntza irizpideak ezarriko dira plan honetan, eta ondoren, irizpide orokor horiek zerbitzuz-zerbitzu eta langilez-langile egokitu eta aplikatzen hasteko neurriak, plangintzaren inplementazio-fasean erabakiko dira.

Edonola ere, eta nahiz eta Udalaren barne harremanetan eragitea izan lehen mailako helburua, herritarrekikoa bermatu, azken urteetan Hondarribiko Udalak eman dituen aurrera pausuei eutsi eta kanpo harremanetan atzeman diren zenbait hutsuneri erantzutea ere izango da plan honen helburua.

##### 2 Langileen motibazioa indartzea:

Gaztelaniarekiko inertzia eten eta, arian-arian, euskaraz lan egiteko helmugara, urratsez urrats eta ahalik eta langile gehienekin adostasunarekin iritsi nahi da, ez baita beste biderik. Lehendik motibatuak daudenei, laneko komunikazio zirkuluetan, bereziki idatzizkoetan, euskaraz aritzeko aukerak ugarituko zaizkie; motibatu beharrekoekin, euskaraz aritzeko ezintasuna gaitzetzeko laguntza eskainiko zaie eta euskaraz lan egin

beharra berriz, modu progresiboan eta udal langile bakoitzaren aukerak kontuan hartuta ezarriko den zerbait izango da.

### **3 Idatzizko sortze-hizkuntza gisa euskara gehiago erabiltzea:**

Euskararen Udal Ordenantzaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere izan behar du euskarak Hondarribiko Udalean eta hori hala izateko, inprimakiak euskaraz bete eta idatziak euskaraz ekoizteari lehentasuna eman beharra dago.

### **4 Udalaren administrazio-idazki erabilienak bateratu eta euskarazko erabilera sustatzea:**

Udaleko departamentu eta zerbitzu gehienek behin eta berriro erabiltzen dituzten administrazio-idazkiak (dekretuak, ofizioak, egiaztagirak...) zerrendatu, agiri-eredu horiek bateratzeko edukizko eta formatuzko irizpideak adostu, eta euskaraz, modu argi eta ulerterrazean edonork erabili ahal izatea bultzatu nahi da; guzti horrek lagunduko die udal langileei idatzizko lanean euskara erabiltzen eta Udalaren administrazio lanerako ere, agiri eta inprimaki-eredu bateratuekin funtzionatzeak onurak ekarriko dizkio Udalari.

### **5 Langileen hizkuntza-trebakuntza:**

Plangintzaren helburu nagusia euskararen erabilera indartzea izanda, zehatzago Udalaren barneko idatzizko harreman ofizialetan, lehentasunik handiena duten komunikazioetan euskaraz idazteko zailtasun gehien duten langileei zuzendutako trebakuntza lana proposatzen da. Norbere lanpostuan euskaraz aritu nahi eta ezinik eragindako beharrei erantzun ahalik eta egokiena topatzeko lan egin behar da. Hasiera batean udal langileak euskara ikasteko liberatzerik ez da aurreikusten, ezta taldekako trebakuntza saioak antolatzerik ere; bai ordea, erabilera plan honetan onartutako hizkuntza irizpideak bete ahal izateko, Euskara Zerbitzutik egingo den jarraipen lanean atzematen diren trebakuntza behar espezifikoek erantzutea. Askotan, euskara irakaslerik gabe, Euskara Zerbitzuko itzultzaileak berak edo euskara teknikariak egin ahal izango du trebakuntza lan hori.

### **6 Itzulpen zerbitzuko lana optimizatzea:**

Itzulpen beharrak zentzuzko neurrira ekartzen ahalegin bat egin beharra dago; hizkuntza ofizial bietan argitaratu behar diren idatziak itzultzeko betebeharra, departamentu bakoitzarena izan behar du eta horretarako gaitasun nahikoa ez dagoenean soilik jo itzulpen zerbitzura. Bestalde, udalaren idatzizko lanean euskaraz

ekoiztea lehenetsi nahi den neurrian, euskaratik gaztelaniara egin beharreko itzulpenei lehentasuna emango zaie.

### **7 Plangintzaren jarraipen lana eta planean ezarritako hizkuntza irizpideak bete ahal izateko laguntza:**

Euskararen Udal Ordenantza eta Erabilera Plan honek jasotako hizkuntza irizpide nahiz normalkuntza neurriak guztiz betetzera iritsi ahal izateko, Euskara Zerbitzuak jarraipen eta ebaluazio lan estua egitea guztiz beharrezkoa da, bereziki jarraipen lanean orain egon daitezkeen hutsuneei aurre egin ahal izateko.

#### **3.3.2. Eragin-eremua**

Hondarribiko Udalaren Departamentu eta zerbitzu guztietara zabalduko da plangintza hau eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko laugarren xedapen gehigarrian araututakoaren arabera, sozietate publikoetarako eta zuzenbide pribatuko entitate publikoetarako neurrien aurreikuspenak ere egingo dira plangintzaldian zehar.

Erabilera planean udaleko lanpostuak betetzen dituzten pertsona orok parte hartuko du.

Derrigortasun-data ezarria izanik dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenekin, banan-banako neurri zuzentzaileak hartuko dira.

#### **3.3.3. Hondarribiko Udaleko administrazio atalen izaera eta lehentasunak**

Hirigintza eta Obrak Departamentuaren barruan kokatzen den Zerbitzu Teknikoetako azpi atala izan ezik, gainerako administrazio atal guztiak, atal elebidunak dira.

Atal elebidunetan, euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain lan hizkuntza ere izango da, hau da, arian-arian agiriaren sorburu hizkuntza euskara izango da, eta lehen hizkuntza, jendaurreko harremanetan eta atalaren gainontzeko zereginetan ere.

Eusko Jaurlaritzak emandako irizpideak kontuan hartu dira planean sartuko diren lanpostuen gaineko lehentasunak ezartzeko; irizpideak honakoak izan dira:

1. Derrigortasun data ezarria izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenak, edozein dela ere beren atalaren izaera.
2. Borondatez, derrigortasun data ezarri gabe izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenak.
3. Dagokien hizkuntza eskakizuna baino bat baxuagoa egiaztatu dutenak ere sartuko dira planean, betetzen duten lanpostuaren lan-jardunak estrategikotzat jo direlako.

Horrezaz gain:

- Ez dira planean sartuko iraupen laburreko lanpostuetarako kontratatutakoak. Adibidez: Udaltzainak eta Gizarte Zerbitzuetako dinamizatzailerak soziokulturalak.
- Ez dira planean sartuko ere zerbitzu kontratazio bidez kudeatutako lanpostuetako langileak<sup>1</sup>.
- Euskaltegiko euskara irakasleak ere planetik kanpo utziko genituzke.
- Eta baita ere 2 HE baino gutxiago dutenak (inolaz ere baztertu gabe horiekin plangintza berezituak egiteko aukera).

### 3.3.4. Eragin-epea

Plan honen eragin-epea 2022ko abenduaren 31n bukatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza-normalkuntzarako prozesuaren VI. Plangintzaldiaren amaierarekin batera. Plan honen jarraipena eta aplikazioa, VI. Plangintzaldiaren barruan egingo da, 2018-2022 epealdian.

---

<sup>1</sup> Kasu hauetan egokiagoa baita kontratazio baldintzatan hizkuntza aldagaia txertatzea.



### 3.3.5. Planaren implementaziorako prozedura eta oinarri metodologikoak

Hondarribiko Udalarentzat plangintza hau epe motzera aplikagarria eta hizkuntza normalizaziorako eraginkorra izan dadin, erabiliko den metodologia eta prozedurak honako oinarriak ditu:

**1 2018ko iraila-urrian eta 2019ko apirilean egindako datu bilketan eta udal langileengandik jasotako iritzietan du abiapuntua:**

Galdetegi bidez udal langile gehienek hizkuntza erabilerari buruzko datuak eta balorazioak jaso dira. Hondarribiko Udalak egin berri duen diagnostikoko informazioa kontuan izan da beraz, hizkuntza irizpideak eta euskararen erabilera areagotzeko plan honek jasotzen dituen lehentasunak proposatzerakoan.

**2 Erakunde osoa hartuko da kontuan, normalkuntza neurriak ezartzerakoan administrazio atal bakoitzaren egitura, funtzionamendua eta hizkuntza egoera kontuan izanik:**

Udalaren kanpo nahiz barne funtzionamendurako, Hondarribiko Udalaren arlo guztietarako hizkuntza irizpideak behin finkatu ondoren, irizpide horiek modu progresiboan bete ahal izango dira eta kasuan kasuko egoeren arabera neurri zuzentzaileak proposatuko ditu Udaleko Euskara Zerbitzuak.

**3 Eusko Jaurlaritzak proposatutako normalizazio esparruen arabera planifikazio modua (ardatzak, lehen mailako elementuak eta bigarren mailako elementuak):**

Eusko Jaurlaritzak Hizketa aplikazio informatikoan proposatutako metodologiaren oinarrian, ondorengo ardatz eta elementuak hartzen dira aintzat plangintza hau hezuramitzaerakoan:

#### ZERBITZU HIZKUNTZA

1. Erakundearen irudia
  - a. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak
  - b. Marketina, publizitatean eta jendaurreko ekitaldiak
  - c. Ingurune digitala
2. Herritarrekiko harremanak
  - a. Herritarrekiko harreman idatzia
  - b. Herritarrekiko ahozko harremana

## LAN HIZKUNTZA

3. Barne harremanak eta lan tresnak
  - a. Lanari loturiko hizkuntza paisaia
  - b. Barne harremanak idatziz
  - c. Barne harremanak ahoz
  - d. Baliabide informatikoak
4. Pertsonen kudeaketa
  - a. Pertsonen kudeaketa
  - b. Lanerako prestakuntza
5. Kanpo harremanak
  - a. Administrazioa
  - b. Erakunde pribatuak
6. Kudeaketa sistema
  - a. Pertsonak
  - b. Estrategia
  - c. Herritarrak eta zerbitzua

#### 4 Lehentasunak, orokorrean euskara Hondarribiko Udalean lan hizkuntza izateko ahaleaginean ezarriko dira:

Udalaren lan-hizkuntza euskara izan dadin, udal langileek idatzizko lanean euskaraz gero eta gehiago produzitu dezaten lortu nahi da; horretan zentratutako esku-hartzeko estrategiak erabiliko dira plangintzan honetan, neurriko irizpideak langileei proposatuz eta, bete daitezten, Euskara Zerbitzutik eskainitako laguntza eta jarraipen lana, behar-beharrezkoak izango dira.

Bestetik, euskaraz idatzi eta euskaraz produzitzearekin udal langileen lana optimizatzeko neurriak ere hartuko dira; euskaraz lan egiten duenari, gainera gaztelaniara itzultzea eskatzen bazaio, lana bikoiztu eta euskarak bigarren hizkuntza gisa jarraitzeko arriskua dago. Arian-arian, udal zerbitzu gero eta gehiagoren idatzizko ekoizpena euskara hutsezkoa izan eta, beharrezkoa denean, Euskara Zerbitzuak euskaratik gaztelaniara itzultzea lehenetsiko da.

## 5 Plangintzaren jarraipenaren ardura, Udaleko zerbitzu bakoitzarena:

Udal zerbitzu bakoitzak, plangintza honen jarraipenerako eta Euskara Zerbitzuarekiko koordinazio lanerako ordezkarari arduradun bat izendatuko du.

Zerbitzu-atal bakoitzaren ardura izango da euskararen erabilera normalizatzeko plangintza honek xedatutako helburu eta ekintzen jarraipena egin eta neurri zuzentzaileak ezartzea. Horretarako Euskara Zerbitzuaren erabateko laguntza izango du.

## 6 Plangintzaren inplementazio eta jarraipenerako egitura:

Plangintza honen kudeaketarako, urteko kudeaketa planak diseinatu, normalizazio ekintzak zehaztu, horiek gauzatu eta planaren urteroko ebaluazioa egingo da.

Plan honekin aurrera egin eta geldialdirik gabeko lan dinamika bat Udal zerbitzu desberdinetara zabaldu ahal izateko, oso gainean egonez eta bertatik bertara lan eginez soilik lortuko da benetako aurrera pausoak ematea.

Bestalde, euskarazko produkzio idatzia lehenestearekin, itzulpen zerbitzura egindako kontsultak ugaritu egingo dira eta idatziz aritzeko trebakuntza beharrak areagotu.

Planaren behar bezalako inplementazio eta jarraipen lanerako beraz, egitura tekniko bat ezarriko da, Euskara Zerbitzuaren baliabideak kontuan izanik eta horiek egokitzeko Udalak dituen aukerak aztertuz.

## 3.4. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Jarraibideak

### 3.4.1. Hizkuntzen erabilerarako jarraibideen zergatia

Hondarribiko Udalean, langile ugariak dute euskaraz lan egiteko gaitasuna; dena dela, oraindik ere hainbat zerbitzutan, urte luzeetako inertiaren indarrez, gaztelaniaz jarraitzen da lanean. Une honetako erronka, ezagupenetik erabilerarako jauzia pixkanaka egiten joatea da.

Hondarribiko Udalarentzat behar-beharrezkoa da une honetan, udaleko zerbitzu eta departamentu guztietarako baliozkoak izango diren neurri eta irizpide orokor batzuk definitzea, euskara zerbitzu hizkuntza gisa nahiz lan hizkuntza gisa erabilia izan dadin.

Horrenbestez, bosgarren atal honetan jasotako hizkuntza irizpide eta jarraibideek, plangintzarekin lortu beharreko helburuak zein diren jasotzen dute. Ondoren, irizpide orokor horien zehaztapena, departamentukako erabilera planen bitartez egingo da.

### 3.4.2. Ahozko komunikazioa

Hondarribiko Udalak euskaraz eta gaztelaniaz emango du zerbitzua, betiere kontuan harturik solaskidearen nahia, hizkuntza batean edo bestean aritzeko.

Nolanahi ere, ahozko harreman-mota guztietan (telefonoz, harrera-lekuetan), euskaraz egingo dute lehen hitza Hondarribiko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileek, eta gero, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko dute. Beti errespetatuko dute solaskidearen hizkuntza-aukera, inolako deserosotasunik eragin gabe.

- a). **Herritarrari zerbitzua ematen zaionean**, euskarazko harrera eta jarduna bermatuko da.
- b). **Administrazioen arteko harremanetan**, harrera euskaraz izatea bermatuko da eta ahalegin berezia egingo du Hondarribiko Udalak jarraipena ere euskaraz izan dadin, solaskidea euskal hiztuna den kasuetan.
- c). **Hondarribiko Udalaren barruko harremanetan**, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, arian-arian lan-hizkuntza ere izateko bideak urratuko dira. Horrela, adostasuna tarteko eta hizkuntza gaitasunak ahalbideratzen duen neurrian, langileen arteko ahozko harremanak eta eguneroko zereginiek dakartzaten ahozko jardunak euskaraz egingo dira: lan-bilerak, jendaurreko ekitaldiak...

### 3.4.3. Idatzizko komunikazioa

#### a). Herritarrentzako eta herriko entitateentzako dokumentuak.

Herritarrei eta entitateei zuzendu beharreko dokumentazio estandarizatu orokorra euskaraz eta gaztelaniaz egongo da. Modu berean jokatu da hartzaile jakin eta zehatzik ez duten administrazio-idazkiekin.

Herritarrak edo dagokion entitateak administrazioekiko harremanetan euskaraz jardutea hautatu duenean edota haiek euskara hutsean igorritako idatzien erantzuna denean, euskara hutsezko bertsioak erabiliko dira.

Era berean, euskara hutsezko bertsioak erabiliko dira euskara ohiko hizkuntza duten organismo edo erakundeei bidaltzen zaizkien idatzietan.

#### b). Beste administrazio batzuekin harremanak.

Espedientea Hondarribiko Udalean hasten denean, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herri administrazioekiko harreman idatziak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira. Hala ere, euskararen erabilera normalizatzeko araudia betetzea dagokien Administrazio Publikoei igortzen zaizkien idatzietan, euskara hutsezkoak izan daitezen bideak jorratuko ditu Hondarribiko Udalak.

Herri administrazioa Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko izanda, euskara ofiziala den lurralde batean dagoenean, Hondarribiko Udaletik igorri beharreko dokumentazioa hizkuntza ofizial bietan idatziko da.

Berariaz harremana hizkuntza ofizial batean izan nahi dutela adierazten duten herri administrazioekiko edo haien atalekiko harremanetan, Hondarribiko Udalak bidaltzen dituen idatziak hizkuntza horretan idatzi eta bidaliko dira.

#### c). Hondarribiko Udalaren barneko idazkiak.

Udal langile guztiei (hartzaile jakinik gabe) bidalitako dokumentuak, mezuak, abisuak eta abar (e-postaz talde orokorrera zuzendutakoak, gutunak, jakinarazpenak...), euskara hutsean igorriko dira. Euskara hutsez bidalitako idazkiak ulertzeko zailtasunak dituen langilerik dagoenean, idazki elebiduna bidaliko zaio edo itzulpen zerbitzuaren laguntza eskaini.

Beti ere adostasuna tarteko, zerbitzuko arduradunarentzat edo beste teknikarientzat egindako idazkiak euskara hutsean egitea sustatuko da.

Barneko euskarazko komunikazioen erantzunak euskaraz egingo dira eta zerbitzu nahiz departamentuen arteko harremanetan euskarazko komunikazioak sustatuko dira.

Lan taldeetan euskara erabiliko da lan hizkuntza moduan horretarako ulermen maila nahikoa dagoenean. Kasu horretan eztabaidagai izango diren dokumentuak euskaraz erredaktatuko dira.

Zerbitzuan bertan langile guztien esku geratzen diren idazkiak, sarean erabiltzen den dokumentazioa, artxibo lanak, kontsultarako diren dokumentuak, karpeten etiketak, eta abar, euskaraz eginda egongo dira, baldin eta horretarako zailtasun berezirik ez badago.

Udaleko organo informatibo eta exekutiboen bilkuretako deialdi guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, ohiko lan-hizkuntzatzat euskara aukeratzen duten organoen bilera-deialdiak ezik, hauek euskara hutsean idatziko baitira; gaztelaniazko itzulpena, eskatzen duten partaideei bakarrik igorriko zaie (udal-ordenantzaren 18. artikulua).

Udalbatzarrak onartu beharreko irizpenak eta dokumentu eranskinak, bi hizkuntza ofizialetan edo euskaraz idatziak egon beharko dute.

Udaleko organo informatiboen eta Gobernu Batzordearen bilkuretako akten testu originalak, bileretan erabili den hizkuntza ofizialean idatziko dira. Edozein kasutan, euskaraz idatzitako proposamen edo diktamenei buruzko erabakiak, bileretan gaztelaniaz eztabaidatuak izan badira ere, euskaraz jasoko dira aktetan (udal-ordenantzaren 16. artikulua).

Arduradun politikoentzako egindako idazkiak, jasotzaileak daukan hizkuntza gaitasuna kontuan hartuz egingo dira, hau da, euskarazko gaitasuna baldin badauka, euskara hutsean egitera joko da.

Hondarribiko Udala dokumentazioaren hartzailea denean, honela jokatu beharko du: dokumentua euskaraz jasotzen badu, honen erantzuna euskarazkoa izango da. Bi hizkuntzatan jasotzen badu, bi hizkuntza ofizialetan erantzungo dio eta gaztelania hutsezkoiei, oro har, bi hizkuntza ofizialetan, baldin eta hartzaileak espresuki besterik eskatzen ez badu.

#### **3.4.4. Itzulpen-irizpideak**

- 1.- Hizkuntza ofizial bietan argitaratu behar diren idatziak itzultzeko betebeharra departamentu bakoitzaren erantzukizuna da.
- 2.- Kanpotik bidalita, Hondarribiko Udalak jasotzen dituen dokumentu guztiak ez dira besterik gabe itzuliko. Dokumentuaren hartzaile den zerbitzuan aztertu eta bideratu behar duen pertsonak dokumentu hori ulertzeko hizkuntza gaitasunik ez duela egiaztatzen denean, dokumentuaren edukia laburturik emango da eta, ezinbestekoa dela ziurtatzen denean bakarrik, itzuli egingo da.
- 3.- Dokumentu elebidunak sortu beharra dagoenean, ahal den neurrian, zerbitzuan dauden bitartekoak (eredu normalizatuak, informatika tresnak eta abar) erabilia egin beharko da. Eskura diren bitarteko horiek beharrak asetzeko nahikoak ez direnean, itzulpen zerbitzua arduratuko da behar diren testuak itzultzeaz. Zerbitzu eta departamentuek,

beren bitartekoz prestatutako agiri elebidunen bi bertsioen hizkuntza zuzentasuna zaintzeko itzulpen zerbitzuaren erabateko laguntza izango dute.

- 4.- Itzulpen beharrak zentzuzko neurrira ekartzeko estrategiak aztertu eta ezartzea departamentu bakoitzaren eginkizuna da. Bereziki, administrazio prozeduraren barruan erabili beharreko idatzietan eredu normalizatuak moldatu eta erabiltzea izango da estrategia horien abiaburua.
- 5.- Administrazio prozeduraz kanpo egiten diren hedakuntza, sustapen eta informazio idatzi edo agiriaren itzulpenean (liburuak, argitalpenak, katalogoak, txostenak, publizitate gaiak eta gisakoak) argitalpenaren egile edo arduradun den zerbitzuak, kasu bakoitzean bilatu behar du hizkuntza ofizial bien erabilera zuzen eta orekatua ziurtatzeko era konkretua, argitalpenaren irakurle, eduki, ezaugarri eta trataera formala kontuan izanda.
- 6.- Itzulpen eskeak itzulpen zerbitzuari egiterakoan zerbitzu eskatzailearen erantzukizuna izango da:
  - a). Hizkuntza ofizial batera itzultzeko eskaera izatea.
  - b). Eskatutako idatzia itzultzeko arrazoizko epea aurrez planifikatzea.
  - c). Itzulgaiari lotutako material, erreferentzia eta informazio iturriak, behar diren guztietan, itzultzailearen esku jartzea.
  - d). Argitaratu beharreko dokumentuaren itzulpen aurreko eta osteko urrats guztien gainean kontrol zehatza ezartzea, itzulpen lanean eragin kaltegarririk izan ez dezaten.

#### **3.4.5. Langileen prestakuntza**

Prestakuntza, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko aukera emango zaie Hondarribiko Udaleko langileei ahal den guztietan. Horretarako, langileentzat urtero antolatzen den prestakuntza planeko ikastaroen artean, euskaraz egingo diren ikastaroen eskaintza bat prestatuko du eginkizun horren ardura duen departamentuak eta baita ikastaroak euskaraz burutu daitezten ahalegindu ere.

### 3.4.6. Erregistroa

- 1.- Erregistroan sarrera emateko udalaren inprimaki-ereduan eremu bat egongo da, udalaren erantzuna zein hizkuntzatan jaso nahi den adierazi ahal izateko, ele bietan edo euskara hutsean.
- 2.- Erregistroari lotutako aplikazio informatiko guztietan, alor bat ipiniko da administratuari zein hizkuntzatan erantzun behar zaion jakiteko, eta beste bat berriz, erregistrotik sartzen edo irteten den dokumentazioa zein hizkuntzatan dagoen adierazteko.
- 3.- Udalera sartzen diren nahiz udaletik ateratzen diren dokumentuak, idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira Udal Erregistroan. Euskaraz idatzitakoa euskaraz jasoko da, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitakoa, euskaraz ere eta gaztelaniaz idatzitakoa, gaztelaniaz.
- 4.- Erregistroaren inskripzioa hizkuntza ofizial batean zein bestean egonik ere, erregistroa kontsultatu nahi duen herritarraren hizkuntza hautapena errespetatzeko, behar den guztietan inskripzioaren itzulpena ziurtatuko da.

### 3.4.7. Diru-laguntzak

Hondarribian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantzaren 30. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Hondarribiko Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, diruz lagundutako beren jardunaren bitartez sortutako agerpen publiko orotan euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko dute, ahoz zein idatziz. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna.

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten udal organoek, bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek artikulua honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeke eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.



### **3.4.8. Argitalpenak**

Udalaren bando, buletin, araudi, ordenantza, ebazpen, aldizkari, liburu eta zabalkunderako argitalpen oro, bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira. Dena den, ezagutzera ematen denaren jasotzailearen berezitasunek hala eskatzen badute, euskara hutsezko bertsioak egingo dira.

### **3.4.9. Tresna eta aplikazio informatikoak**

Udal zerbitzuetan erabiltzeko diren programa edo tresna informatikoekin bi hizkuntza ofizialetan berdin lan egin ahal izateko, neurriak hartuko dira: programa edo tresna horien egokitzapena egin, merkatuan dauden produktuen euskarazko bertsioak eskuratu, e.a.

Euskara Hondarribiko Udalaren lan hizkuntza izan dadin, eta udal departamentu eta zerbitzu guztiek aplikazio informatikoak erabiltzerakoan hizkuntza irizpide bateratu bat izan, irizpide orokor modura, euskarazko erabilera lehenetsiko da.

### **3.4.10. Internet eta intranet sareak**

- 1.- Hondarribiko Udalaren eskumenean diren Internet eta intranet sareetako edukiak, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira.
- 2.- Hondarribiko Udaleko web orrietara sartzean, aukera egongo da euskara, gaztelania eta, hala badagokio, gainerako hizkuntzak hautatzeko.
- 3.- Internet eta intranet sareen bidez izapideak egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.
- 4.- Administrazioaren ohiko prozeduraz kanpo, departamentuek beren web orrietan kanpoan beste sail, erakunde, enpresa edo gainerakoek sortutako edukiak jartzen dituztenean, bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabiliko dira berdintasun printzipioa oinarri harturik.

### 3.4.11. Errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak

- 1.- Hondarribiko Udalak dituen bulego, egoitza zein lagatako lokal guztietako kanpoaldeko nahiz barrualdeko errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak (askotan paperean egindakoak), euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira.
- 2.- Errotuluetako testua euskara hutsean idatziko da ondoko kasuetan, betiere euskararik ez dakiten herritarren hizkuntza eskubideak urratu gabe:
  - a). Errotuluetako hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
  - b). Mezuak piktograma batez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.

### 3.4.12. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak

- 1.- Udalaren iragarpen ofizialak eta gainerako publizitate ekintzak, euskaraz edo euskara eta gaztelaniaz egingo dira.
- 2.- Udalak sortzen dituen kanpainak, publizitate mezu eta gisakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz sortuko dira. Kanpainaren edukiak eta esloganak asmatzerakoan kontuan hartuko dira bi hizkuntza ofizialen ezaugarriak. Hartara, komunikazio-kanpainetarako lehiaketa publiko eta era guztietako kontratazioetan baldintza gisa eskatuko da kanpainaren mezua bi hizkuntzatan sortua izatea, hots, hizkuntza batean sorturikoaren itzulpena ez da baliozkotzat emango.
- 3.- Komunikabideetan argitaratzen iragarkiak bi hizkuntza ofizialetan emango dira ezagutzera, euskarazko mezua lehenetsiko delarik. Era berean, komunikabideetara bidaltzen diren udalaren ohar eta informazioak ere euskaraz eta gaztelaniaz igorriko dira, eta informazio horien berri bi hizkuntzetan eman dezaten eskatuko zaie komunikabideei (udal-ordenantzaren 19. artikulua).
- 4.- Iragarpenok euskara hutsez argitaratuko dira euskarazko hedabideetan.

### 3.4.13. Izen ofizialak

Hondarribian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantzaren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, Hondarribia udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, oro har, toponimoak, Hondarribiko finkatuko ditu bere eskumen-esparruan; beti ere, euskal, erromantze edo gaztelaniazko jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz.

Era berean, herri bideetako trafiko seinale eta iragarpen guztiak euskarari lehentasuna emango dion modu elebidunean egongo dira, nazioarteko arauak errespetatu eta ulergarritasuna bermatzearen kalterik gabe.

#### **3.4.14. Udalaren jende aurreko ekitaldiak**

Euskararen erabilera bermatuko dute Hondarribiko Udaleko edo bere erakunde autonomoetako kargudun eta enplegatu elebidunek, Hondarribiko Udalak antolatzen dituen prentsaurreko, ekintza instituzional, hitzaldi, mahai inguru, jardunaldi tekniko, ikastaro, erakusketa eta abarren antolamendu fasean. Kasu bakoitzean, hizkuntza trataera zehatza definitu beharko du departamentu arduradunak, alderdi hauek kontuan izanda: ekitaldiaren helburuak, gaiak, eragin soziala, hartzaile edo entzule potentzialak, hizlari edo irakasleak, eta erabili edo banatuko den materiala.

#### **3.4.15. Kontratazio administratiboak**

- 1.- Kontratu bidez emandako jarduerak edo zerbitzuak Hondarribiko Udalak berak emanak izango balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei.
- 2.- Kontratuen baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.
- 3.- Kontratuaren bidez eman beharreko zerbitzuaren prestazioak herritarrekiko harreman zuzenak dakartzanean, baldintza hauek beteko dira:
  - a). Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek bi hizkuntza ofizialetan hartuak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.
  - b). Herritarrentzako inprimakiak, oharra eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko ditu enpresa esleipendunak, herritarrak berariaz inolako aukeraketarik egin ez badu.
  - c). Hondarribiko Udalaren edo bere erakunde autonomoen kontratu bat esleiturik duten entitateek edo pertsona fisikoek, kontratuaren jardunaren ondorioz sortutako agerpen publiko orotan bi hizkuntza ofizialak erabili behar dituzte, euskarari lehentasuna emanez.

Kontratazioa egin eta kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte kontratudunek atal honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta erabilitako hizkuntza ofizialen zuzentasuna zaintzeko.



Esleipenaren helburua herrilan bat denean, jende aurrerako seinale, txartel eta oharrak bi hizkuntza ofizialetan idatzirik ezarri behar dira.

- 4.- Kontratuaren helburua, laguntza edo aholkularitza zerbitzu bat eskuratzea denean, baldintza hauek beteko dira:
- a). Esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko ditu lanak, kontratua egiten duen organoak zehazki besterik adierazten ez badu. Hondarribiko Udalak ez du bere gain hartuko mota horretako kontratu baten bitartez sortutako lan idatzien itzulpenik.
  - b). Hizkuntza ofizialen erabilera zuzena zaindu eta begiratzea kontratua egiten duen organoaren erantzukizuna izango da eta, horretarako, itzulpen zerbitzuaren erabateko laguntza eta aholkularitza izango ditu.

#### **3.4.16. Udal instalazioen eta materialen erabilera**

Hondarribian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantzaren 30. artikuluekin bat etorritik, udal instalazioak eta materialak erabilia antolatzen diren jardueretan, euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko da, ahoz zein idatziz. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna.

### 3.5. Plan Estrategikoa 2018-2022: helburu orokorrak

HONDARRIBIKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2022									
ARDATZAK	1. MAILAKO ELEMENTUAK	2. MAILAKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	Hasiera (%)		Aurreikusitakoa (%)		OHARRAK	
				EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN		
<b>1. ZERBITZU HIZKUNTZA.</b>  <u>Helburua:</u> Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.	<b>1. ERAKUNDEAREN IRUDIA.</b>  <u>Helburua:</u> Jendaurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrek euskara erabiltzera gonbidatzeko (Txantxangorria eta bestelako identifikagarriak erabilia...).	<b>1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak.</b>  <u>Helburua:</u> Jendaurreko errotulazioa eta ikus-entzunezkoak euskaraz ere egotea.	<b>1.1.1. Errotulazio eta ikus-entzunezkoak.</b>		100,0		100,0		
			<b>1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa oharrak eta paper gauzak.</b>	30,0	70,0	30,0	70,0		
			<b>1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak.</b>  <u>Helburua:</u> Marketinean, publizitatean eta jendaurreko ekitaldi guztietan euskararen presentzia eta erabilera, era batera edo bestera, bermatzea.		EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK
			<b>1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak.</b>	64,6		75,0			
			<b>1.2.3. Herritarrari begira antolatutako ikastaro eta jarduerak.</b>	EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN	OHARRAK	
			<b>1.3. Ingurune digitala.</b>  <u>Helburua:</u> Webgunean eta sare sozialetan edukiak euskaraz ere egotea.	<b>1.3.1. Webgune eta sare sozialen edukia.</b>	20,0	80,0	20,0	80,0	
				?	?		100,0	Solaskideak (hutsunea)	

ARDATZAK	1. MAILAKO ELEMENTUAK	2. MAILAKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	Hasiera (%)		Aurreikusitakoa (%)		OHARRAK	
				EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN		
<b>1. ZERBITZU HIZKUNTZA.</b>  <u>Helburua:</u> Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.	<b>2. HERRITARREKIKO HARREMANAK.</b>  <u>Helburua:</u> Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.	<b>2.1. Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua emateko edo produktua eskaintzeko orduan.</b>  <u>Helburua:</u> Herritarrekiko harremanetarako idazkiak euskaraz ere egotea.	<b>2.1.1. Idatzizko harremanak.</b>	10,9	74,4	15,0	85,0		
			<b>2.1.2. Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak.</b>	39,7	50,9	50,0	60,0		
				<b>EUSKARAZ</b>		<b>EUSKARAZ</b>		<b>OHARRAK</b>	
			<b>2.2. Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan.</b>  <u>Helburua:</u> Herritarrekiko harremanetan ahozko arreta euskaraz ere egitea	<b>2.2.1. Harrera.</b>	86,2		100,0		88,2 telefonoz 84,1 aurrez aurre
				<b>2.2.2. Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak.</b>	58,8		65,0		58,4 telefonoz 60,4 aurrez aurre
				<b>2.2.3. Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak.</b>	88,6		100,0		
<b>2. LAN HIZKUNTZA.</b>  <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.	<b>3. BARNE HARREMANAK ETA LAN TRESNAK.</b>  <u>Helburua:</u> Komunikazioan eta lan tresnetan euskara ere ohikotasunez erabiltzea.	<b>3.1. Lanari lotutako hizkuntza paisaia.</b>  <u>Helburua:</u> Bulegoko materialak, paper gauzak, kafe makinak etab. euskaraz egotea.		EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN	<b>OHARRAK</b>	
			<b>3.1.1. Lanari lotutako hizkuntza paisaia.</b>	?	?		100,0	Solaskideak (hutsunea)	
			<b>3.2. Barne harremanak idatziz.</b>  <u>Helburua:</u> Idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.	<b>3.2.1 Informaziorako eta/edo komunikaziorako tresnak.</b>	?	?		100,0	Solaskideak (hutsunea)
				<b>3.2.2. Lan bileretako idatziak.</b>	36,5	40,6	45,0	45,0	
				<b>3.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak.</b>	32,0	48,1	37,0	55,0	

ARDATZAK	1. MAILAKO ELEMENTUAK	2. MAILAKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	Hasiera (%) EUSKARAZ		Aurreikusitakoa (%) EUSKARAZ		OHARRAK
<b>2. LAN HIZKUNTZA.</b>  <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.	<b>3. BARNE HARREMANAK ETA LAN TRESNAK.</b>  <u>Helburua:</u> Komunikazioan eta lan tresnetan euskara ere ohikotasunez erabiltzea.	<b>3.3. Barne harremanak ahoz.</b>  <u>Helburua:</u> Ahozko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.	3.3.1. Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak.	66,8		75,0		
			3.3.2. Erakundearen barruko telefonozko harremanak.	67,9		75,0	Galdetegian barruko harremanak jaso dira telefonoz eta aurrez aurrekoak bereizi gabe.	
			3.3.3. Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak.	67,9		75,0	Galdetegian barruko harremanak jaso dira telefonoz eta aurrez aurrekoak bereizi gabe.	
		<b>3.4. Baliabide informatikoak.</b> <u>Helburua:</u> Euskarri informatikoen euskarazko bertsioa ere egotea eta horiek erabiltzen direla sustatzea.	<b>3.4.1. Euskarazko bertsioen instalazio kopurua.</b>	EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK
				65,0		75,0		
				EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK
		3.4.2. Euskarazko bertsioen erabilera.	?		?		Ez da neurtu.	
	<b>4. PERTSONEN KUDEAKETA.</b>  <u>Helburua:</u> Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.	<b>4.1. Pertsonen kudeaketa.</b> <u>Helburua:</u> Euskararen ahozko eta idatzizko erabilera areagotzea giza baliabideen kudeaketan.	<b>4.1.1. Pertsonen kudeaketa.</b>	EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK
				?		?		Ez da neurtu. Langileei lotutako idatzi ofizialak hartuko dira kontuan (nominak, ordutegiak, kontratuak...)
		<b>4.2. Laneko prestakuntza.</b> <u>Helburua:</u> Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.	<b>4.2.1. Laneko prestakuntza.</b>	EUSKARAZ		EUSKARAZ		
				52,5		65,0		
				EUSKARAZ		EUSKARAZ		
?					?		100,0	
	<b>4.2.2. Ikastaroen kudeaketa.</b>	?		?				

ARDATZAK	1. MAILAKO ELEMENTUAK	2. MAILAKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	Hasiera (%)		Aurreikusitakoa (%)		OHARRAK
				EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN	
2. LAN HIZKUNTZA.  <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.	5. KANPO HARREMANAK.  <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeekiko harremanetan.	5.1. Administrazioa  <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea herri administrazioekiko harremanetan.	5.1.1. Administrazioekiko idatzizko harremanak.	26,9	63,5	30,0	70,0	
				EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK
			5.1.2. Administrazioekiko ahozko harremanak.	78,5		85,0		
		5.2. Erakunde pribatuak: finantza entitateak, produktu eta zerbitzu hornitzaileak...  <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea hornitzaileekiko harremanetan.	5.2.1. Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak.	EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN	OHARRAK
				27,4	49,9	30,0	70,0	
			5.2.2. Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak.	EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK
				64,1	70,0			
	6. KUDEAKETA SISTEMA.  <u>Helburua:</u> Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.	6.1. PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea.  <u>Helburua:</u> Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea.	6.1.1. Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak	75,4		90,0		Derrigortasun data dutenak eta ez dutenak
			6.1.2. Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna.	100,0		100,0		
			6.1.3. Langileen eta erakunde ordezkarien balorazioa euskararen bilakaerarekiko.	63,7		75,0		Balorazio positiboa hartu da kontuan (galdetegia)
			6.1.4. Langile eta erakunde ordezkarien parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan.	?		?		Ez da neurtu



ARDATZAK	1. MAILAKO ELEMENTUAK	2. MAILAKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	Hasiera (%)	Aurreikusitakoa (%)	OHARRAK
<b>2. LAN HIZKUNTZA.</b> Helburua: Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.	<b>6. KUDEAKETA SISTEMA.</b> Helburua: Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.	<b>6.2. ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa sistema orokorrean integratzea.</b> Helburua: Euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea.	<b>6.2.1. Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza batzordeak egitea. (0-%100)</b>	?	?	Ez da neurtu
			<b>6.2.2. Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze maila. (0-%100)</b>	?	?	Ez da neurtu
			<b>6.2.3. Euskara sortze hizkuntza. (0-%100)</b>	<b>EUSKARAZ</b>	<b>EUSKARAZ</b>	Sortze hizkuntza euskaraz (%38,4) + ele bitan (%22,5).
			60,9	70,0		
		<b>6.2.4. Dokumentuen estandarizazioa. (0-%100)</b>	?	100,0	Ez da neurtu Estandarizatu daitezkeen dokumentuak kontuan hartuz	
		<b>6.3. HERRITARRAK eta ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapen kudeaketan integratzea.</b> Helburua: erakundeko zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea.	<b>6.3.1. HOElen betetze maila. (0-%100)</b>	?	100,0	Ez da neurtu

## **3.6. Eragin esparruak, helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak**

### **3.6.1. Eragin esparruak**

1. Hizkuntza-gaitasuna
2. Ahozko komunikazioak
3. Idatzizko komunikazioak
4. Itzulpenak
5. Langileen prestakuntza orokorra
6. Tresna eta aplikazio informatikoak
7. Internet eta Intranet sareak
8. Argitalpenak
9. Hizkuntza-paisaia (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak)
10. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak
11. Diru-laguntzak
12. Kontratazio administratiboak

### 3.6.2. Hizkuntza gaitasuna

## 1. Eragin-esparrua HIZKUNTZA GAITASUNA

### Abiapuntuko egoera eta lehentasunak (1. eragin-esparrua: hizkuntza gaitasuna)

#### A) Abiapuntuko egoera:

##### INDARGUNEAK:

- Oro har, altua da udaleko langileen hizkuntza gaitasuna. Euskararen ulermena erabat bermatua dago, zazpi langiletik seik ongi ulertzen dute euskara eta batek nahiko ongi. Euskaraz ongi edo nahiko ongi mintzatzen direnak %96 dira eta irakurri, berriz, %95.
- Udal lanpostu zerrendako lanpostuak soilik kontuan hartuta, 65 langiletik 52k badute bigarren hizkuntza eskakizuna edo handiagoa egiaztatua.
- Udal langileen euskara maila, Hondarribiko herritarrena baino nabarmen altuagoa da, 20016. urtean, Eustateko datuen arabera, herritarren % 63,7 baitzen euskalduna (% 16,0 ia-euskalduna eta % 20,3 erdalduna).

##### AHULEZIAK:

- Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua ez duten langileak badira oraindik ere eta horrek eragiten du, bai lanpostu horietako euskararen erabileran eta baita gainerako langileen hizkuntza motibazioan ere.
- Idazketarena da traba handienak dituen trebetasuna, %14k diote maila apala dutela.
- Langileen hizkuntza trebakuntzarako ikastaro eta programarik ez du une honetan udalak.

#### B) Lehentasunak:

- 1.- Udal organigrama eta lanpostu zerrenda eguneratzea egokitzen denean, lanpostuei dagozkien hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak ere eguneratzea, baldin eta 86/97 Dekretuak horretarako bide ematen badu. Pertsonalaren hautapen eta kontratazioetan, hautagaiek lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea eta lanpostuko funtzioak euskaraz burutzeko gaitasuna duela egiaztatzea, hautapen-frogak euskaraz ere eginaraziz; kasu honetan ere 86/97 Dekretuak ezartzen duenaren arabera.
- 2.- Berariazko hizkuntza-prestakuntza eskaintzea, eguneroko lanean idatzizko komunikazioetan euskaraz aritzeko zailtasunak dituztenei zuzendua.

## Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
1.1.- Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenak areagotu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal lanpostu zerrendako lanpostuetako langileak guztira: 65</li> <li>• Derrigortasun data dutenak: % 70,76</li> <li>• Derrigortasun data igarota izanik hizkuntza eskakizunen betetze maila: % 89,13</li> <li>• Derrigortasun data igaro gabe izanik, hizkuntza eskakizunen betetze maila: % 0</li> <li>• Derrigortasun data ez izanda ere, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dute: % 42,10</li> <li>• Derrigortasun data izan zein ez izan, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dute: % 58,46</li> <li>• Derrigortasun data izan zein ez izan, dagokien hizkuntza eskakizuna baino bat gutxiago egiaztatu dute: % 15,38</li> <li>• Hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu dute: % 80,00</li> </ul>
1.2.- Salbuetsitako en euskararen ezagutza hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza eskakizuna egiaztatua izan edo ez, dagozkien funtzio komunikatiboak euskaraz egiteko gai diren langileak:</li> </ul>

## Normalizazio ekintzak (1. eragin-esparrua: hizkuntza gaitasuna)

### 1. Normalizazio-ekintza: berariazko hizkuntza-prestakuntza:

Orokorrean Hondarribiko Udal langileen hizkuntza-gaitasuna altua da, hizkuntza-prestakuntza orokorrari eta bakoitzaren ahaleginari esker. Edonola ere, arrazoi bat edo bestea dela, langilearen atxikimendua hizkuntzarekiko, euskara erabiltzeko motibazioa, eta abar, badira hainbat langile beren lanpostuei dagozkien funtzio komunikatiboak euskaraz egiteko gai sentitzen ez direnak. Horiei berariazko hizkuntza-prestakuntza eskaintzeko aukera aztertzea komenigarria litzateke. Helburua, euskararen irakaskuntza orokorretik, laneko eguneroko errealitatera jauzi egiten laguntzea da. Berariazko hizkuntza-prestakuntza eskaintzerakoan kontuan hartuko da, udalaren lehentasunezko komunikazio eta idazkietan aritzen diren planeko langileak izatea, eta komunikazio jakin horiek euskaraz egiteko prestatuko dira.

### 2. Normalizazio-ekintza: Hondarribiko Udalaren lanpostu zerrendako lanpostu guztiei, dagokien hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data ezartzea.

Hondarribiko Udalak lanpostu zerrenda berria onartzen duenean, hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-data berriak ezarriko dira, 86/97 Dekretuan jasotakoari jarraiki.

## Normalizazio ekintzak (1. eragin-esparrua: hizkuntza gaitasuna)

### 3. Normalizazio-ekintza: pertsonalaren hautapen eta kontrataziorako hizkuntza irizpideak betearaztea.

Hondarribiko Udalaren administrazio unitate guztiek euskaraz lan egin eta zerbitzua ematera iritsi ahal izateko, pertsonalaren hautapen eta kontratazio prozesuetan honako irizpideak ezarriko dira:

- a). Kontratazio prozedurari hasiera emateko deialdian, lanpostuari dagozkion bestelako betebeharrak, baldintza eta irizpideekin batera, lanposturako egiaztatu behar den hizkuntza eskakizuna zehaztu behar da, baldin eta lanpostuak derrigortasun data baldin badauka.
- b). Lanposturako hautagai den orori, hizkuntza eskakizunaren frogak egiteko erraztasunak emango zaizkio, lanpostuari dagozkion administrazio publikoko hizkuntza eskakizuna edo bere baliokidea lehendik onartua ez baldin badauka.

### 4. Lanpostua edozein izanik ere, Hondarribiko Udalean lan egiteko izendatu eta kontratatu aurretik, dagozkion lanpostuko funtzioak euskaraz burutzeko gaitasuna duela egiaztatu behar du langileak, baldin eta lanpostuak derrigortasun data baldin badauka, eta hori hala izan dadin, hautapen frogak euskaraz ere egin behar ditu Hondarribiko Udalak.

### 5. Normalizazio-ekintza: Lanpostu zerrendako lanpostuei lotuta, derrigortasun-data ezarria izan ala ez izan, dagozkien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten langileekin bildu, eta aztertu bakoitzarekin euskalduntze-plan pertsonalizatua adosteko aukerak.

Egungo lanpostu zerrenda 65 langilek osatzen dute. Hauxe da beren hizkuntza egoera:

- 49 langile dira (lanpostu zerrendako % 75,4 beraz), dagozkien hizkuntza eskakizuna edo altuagoa egiaztatuta dutenak.
- Eta 10 langile, aldiz, dagozkiena egiaztatuta ez dutenak. Horietako 2k, dagozkiena baino maila bat baxuagoa dute egiaztatuta.
- Gainerako langileetatik, 5ek ez dute derrigortasun datarik.

Euskara planean parte hartzeko aukera plantilla organikoko lanpostuetara mugatu ordez, Hondarribiko Udalaren borondatea da (aurrerago zehaztuko ditugun irizpideak betetzen dituzten) hautetako langile batzuei ere planean murgiltzeko aukera ematea.

### 6. Normalizazio-ekintza: Salbuetsitakoen hizkuntza-maila eta jarrerak aztertu eta sensibilizatzeko-lana egin.

### 3.6.3. Ahozko komunikazioak

## 2. Eragin-esparrua → AHOZKO KOMUNIKAZIOAK

### Abiapuntuko egoera eta lehentasunak (2. eragin-esparrua: ahozko komunikazioak)

#### A) Abiapuntuko egoera:

##### INDARGUNEAK:

- Telefono bidezko herritarren harrera zerbitzurako langileek erabilitako hasierako hitza euskaraz da % 88,2an eta aurrez aurrekoan % 84,1ean.
- Hondarribiko Udaleko langileek, euskara gehien udaleko ordezkari politikoekin erabiltzen dute, % 80,4koa da adierazle horren emaitza.

##### AHULEZIAK:

- Lan harremanetan, gaztelaniarako joera handiagoa dago ahozkoari dagokionean. Lan bileretan, ahozko harremanetan, euskararen erabilera % 66,8koa da. Eta langileen arteko ahozko harremanetan orokorrean euskararen indizea % 67,9koa da.

#### B) Lehentasunak:

- 1.- Udalaren izenean hitz egin behar den kasuetarako, hizkuntza irizpide argiak zehaztea eta udal langile nahiz ordezkari politikoei jakinaraztea.
- 2.- Zerbitzu eta lanpostu guztietako harrera-hizkuntza euskara izan dadin udalak jarrera aktiboa hartzea (aurrez-aurre nahiz telefonoz), baita ahozko harreman horiek udal barnekoak direnean ere.
- 3.- Udalean lanean hasi berriek ere, udalaren barne harremanetan euskaraz aritzera ohitu daitezen irizpideak ezartzea.

### Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
2.1.- Erakundeko ahozko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrez aurreko harreran lehen hitza: % 86,2 eusk.</li> <li>• Leihatilan elkarrizketa euskaraz (%) 60,4</li> <li>• Telefonoan harrera: % 58,4 eusk.</li> <li>• Herritarrak zein hizkuntzatan jartzen dira harremanetan aurrez aurre: % 58,2 eusk.</li> <li>• Herritarrak zein hizkuntzatan jartzen dira harremanetan telefonoz: % 53,6 eusk.</li> <li>• Beste herri erakundeekiko ahozko harremanetako hizkuntza: % 75,5 eusk.</li> </ul>
2.2.- Salbuetsitakoen euskararen ezagutza hobetzea. Erakundeko ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakunde barruko lan bileretan euskararen erabilera: % 66,8</li> <li>• Barruko harreman informaletako euskararen erabilera: % 67,9</li> <li>• Hautetsiekiko harremanetan euskararen erabilera: % 80,4</li> </ul>

## Normalizazio ekintzak (2. eragin-esparrua: ahozko komunikazioak)

### 7. Normalizazio ekintza: udalaren ahozko kanpo komunikazioetarako hizkuntza irizpideak finkatu eta betearaztea.

Zerbitzu hizkuntza gisa, herritar eta herriko elkarrekin ahozko harremanetan, euskara erabiltzeko aukera, ia guztiz ziurtatzen du Hondarribiko Udalak. Euskaraz mintzatzeko aukerak egon arren, gaztelaniaz aritzeko joeraren aurrean, komenigarria ikusten da zerbitzuz-zerbitzu, ahozko komunikazioetarako udalak zein hizkuntza irizpide jarraitu behar dituen gogorarazi eta jarraipen lan bat egitea.

Erabilera Planean onartutako hizkuntza irizpideen berri eman eta udal zerbitzu guztietan irizpide horien jarraipen lana egingo da, a) telefono eta leihatilan, herritarrekin, beste administrazioekin eta erakundeko beste arlo edo departamentuetako lankideekin nola aritu jakiteko; b) hirugarrenekiko ahozko kanpo-harremanak eragingo dituzten kanpo-kontratazio administratiboetan eta horiek betetzeko neurriak hartzeko; eta c) jendaurreko ekitaldietarako eta horiek betetzen direla bermatzeko (prentsurrekoetan, erakundeak antolatutako ekitaldietan...).

### 8. Normalizazio-ekintza: adierazgarriak jarri, herritarrei euskararen erabilera-eskubideak ezagutzera emateko (mahai-gainekoak...).

Udalarekiko harremanetan herritarrek euskara gehiago erabil dezaten, jendaurreko komunikazio euskarriak, mahai gainekoak eta bestelako adierazgarriak ipiniko dira.

### 9. Normalizazio-ekintza: euskaraz arituko diren langileen sarea sustatu, bai ahoz eta baita idatziz ere, erabilera-ohiturak sortuz joan daitezten.

Erabilera-planean jasotakori jarraiki, udalaren idatzizko lan hizkuntza gisa euskarak lehentasuna izango du, euskara hutsezko komunikazio zirkuluak ahalbidetuko dira eta bide batez, ahozko harremanetan euskara gehiago erabiltzea ere sustatuko da.

### 3.6.4. Idatzizko komunikazioak

## 3. Eragin-esparrua → IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

### Abiapuntuko egoera eta lehenetasunak (3. eragin-esparrua: idatzizko komunikazioak)

#### A) Abiapuntuko egoera:

##### INDARGUNEAK:

- Kanpora begira Udalak herritarrei bidalitako idatzizko komunikazioa ofizialetan, oro har, euskararen erabilera ziurtatua dago (% 85,28 eusk + elebi).
- Langileen arteko idatzizko komunikazio ez formaletan ere esanguratsua da euskararen presentzia, % 67,06 euskara hutsean eta % 11,20 ele bitan.
- Gaztelania hutsez sortutako testuen batez besteko portzentajea % 10aren azpitik kokatzen da hartzailea administrazio publikoko bestelako erakundeak direnean.

##### AHULEZIAK:

- Euskarazko ekoizpen lana, udal langileen gaitasunaren azpitik dago. Idatzizko lanaren sortze hizkuntza gaztelania da kasuen % 39,7an.
- Herritarrek euskaraz egindako idatzizko eskaerei erantzuteko gaztelania erabiltzen deneko kasuak ere badira, % 9,4.
- Idatzizko lanean eta udalaren datu orokorreirengatik, udal barneko harremanetako idazkien artean % 22,7 - % 20,0 dira gaztelania hutsez sortutakoak.
- Erregistro idatzian euskara erabiltzeko zailtasunak daude, langileen hizkuntza ohiturek, formazio hizkuntzak, estatuko legeak gaztelania hutsean egoteak eta abar eragindakoak.

#### B) Lehenetasunak:

- 1.- Udal zerbitzu eta departamentu gehienetarako baliagarriak izango diren udal-agiri eta inprimaki-eredu bateratuak prestatzea, bertsio elebidunetan eta euskara hutsezkoan.
- 2.- Udalaren barne harremanetan erabilienak diren txantiloak eta inprimaki-ereduetan euskara bakarrik erabiltzea.
- 3.- Terminologia teknikoagoa edo idatzizko lanketa handiagoa eskatzen duten udalak berak prestatutako txostenak ere euskaraz sortzea, laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatua daukaten langileek idatzi behar dituztenean.
- 4.- Udal langile guztiei (hartzaile jakinik gabe) bidalitako dokumentu, mezu, gutun eta abisuak euskara hutsez igortzea, eta ele bietan, euskaraz ulertzeko zailtasunak dituztenei soilik.
- 5.- Departamentu eta zerbitzu bakoitzak kanpo harremanetarako dokumentazioa ele bietan edo euskaraz gero eta gehiago sortzea, sortze hizkuntza euskara izanik eta itzulpen zerbitzura jo beharra dagoenean, itzulpena euskaratik gaztelaniara eginez.
- 6.- Udalaren erantzuna zein hizkuntzatan jaso nahi den adierazten den kasuan (ele bietan edo euskaraz), hizkuntza eskakizun hori udal zerbitzu guztiek ziurtatzeko neurriak hartzea.
- 7.- Udaleko organo informatibo eta exekutiboen bilkuretako deialdi eta akta guztietan, euskararen erabilera ziurtatzea.



## Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
3.1.- Erakundearen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitzea, sortze-lana areagotuaz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritarrekiko harremanetan jasotako komunikazioetan hizkuntza: % 31,2 eusk., % 56,5 gazt.</li> <li>Herritarrekiko harremanetan igorritako komunikazioetan hizkuntza: % 10,9 eusk., % 74,4 biak</li> <li>Beste administrazioekiko harremanetan jasotako komunikazioetan hizkuntza: % 21,8 eusk., % 67,2 biak</li> <li>Beste administrazioekiko harremanetan igorritako komunikazioetan hizkuntza: % 26,9 eusk., % 63,5 biak</li> <li>Euskaraz sorturiko dokumentuak, % 38</li> </ul>
3.2.- Erakundeko idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzea, sortze-lana areagotuaz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erakunde barruko idazki ofizial eta prozedura administratiboetan erabilitako hizkuntza: % 32,0 eusk., % 48,0 biak</li> <li>Erakunde barruko langile arteko idatzizko komunikazio ez formaletako hizkuntza: % 67,1 eusk., % 11,2 biak</li> <li>Lan bileretako dokumentu idatzietan erabilitako hizkuntza: % 36,5 eusk., % 40,6 biak</li> <li>Euskaraz sorturiko dokumentuak, % 38</li> </ul>

## Normalizazio ekintzak (3. eragin-esparrua: idatzizko komunikazioak)

Udalaren barne jarduera idatzian euskarazko sortze-lana indartu eta udalaren barne idazki ofizialetako hizkuntza euskara izatea, erabilera plan honen ardatz eta lehentasunik handiena izango da. Euskara hutsezko udal barneko komunikazio zirkuluak indartuz, euskara egiazko lan-hizkuntza izatea ahalbidetuko da eta idatzizko erabileran ez ezik, udal langileen ahozko harremanetan ere eragin positiboa izango du. Helburu horri lotuak daude eragin-esparru honetako normalizazio ekintza gehienak.

Erakundearen idatzizko kanpo-harremanetan, dokumentazio estandarizatu orokorra, euskaraz eta gaztelaniaz egongo da eta euskara hutsean igorritako idatziei, udalak euskara hutsean erantzuteko neurriak hartuko dira. Euskara ohiko hizkuntza duten entitate eta elkarrekin ere, euskara hutsean funtzionatuko da.

#### ⇒ Kanpo harremanetan euskararen erabilera ziurtatzeko normalizazio-ekintzak:

10. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu idatzizko kanpo-harremanetan, paper bidezkoetan zein telematikoetan, eta betetzen direla bermatu.
11. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu hirugarrenekiko idatzizko kanpo-harremanak eragingo dituzten kanpo-kontratazio administratiboetan, eta horiek betetzeko neurriak hartu.
12. Normalizazio-ekintza: Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean:  
Idatzizko kanpo-komunikazioetarako erakundeak ezarri dituen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko; kanpo-harremanetan euskara ere erabiltzeak duen garrantziaz jabetzeko; teknologia berrietan eta harreman telematikoetan euskararen presentzia ziurtatzeko duen garrantzia azpimarratzeko...
13. Normalizazio-ekintza: Administrazioarekiko harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarrak aintzat hartu. Horiekiko harremanetarako protokolo bat definitu eta erakundeak ezagutzera eman.
14. Normalizazio-ekintza: Harremanak euskaraz izan nahi dituzten erakundeak aintzat hartu. Horiekiko harremanetarako protokolo bat definitu eta erakundeak ezagutzera eman.
15. Normalizazio-ekintza: Kanpora begirako dokumentu estrategiko orokorrak identifikatu, euskaratu (beharrezkoa denean), moldatu (testu argiak, zuzenak, egokiak eta erakargarriak izan daitezten) eta langileen esku jarri euskarri ezberdinetan.
16. Normalizazio-ekintza: Idazki elebidunetan euskara nabarmentzeko irizpideak zabaldu eta betetzen direla bermatu.
17. Normalizazio-ekintza: Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, erakundeak itzulpenari dagokionez ezarri dituen hizkuntza-irizpideak hedatzeko, euskaraz idaztera bultzatzeko, euskaraz iristen den oro itzultza ez bidaltzeko...
18. Normalizazio-ekintza: Komunikazioa landu eta langileei jakitera eman euskaraz lan egiteko erabilgarri dauden tresnak, hiztegi elektronikoak, zalantzak argitzeko bideak...
19. Normalizazio-ekintza: Bestelako bideak jorratu:  
Korredakzioa, idazketa elebiduna, laburpenak/aipamenak egin... betiere komunikagarritasuna eta testuen ulergarritasuna aintzat hartuta

#### ⇒ Barne harremanetan euskararen erabilera ziurtatzeko normalizazio-ekintzak:

20. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu idatzizko barne-harremanetarako eta betetzen direla bermatu.
21. Normalizazio-ekintza: Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, idatzizko barne-komunikazioetan erakundeak ezarri dituen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko.

### 3.6.5. Itzulpenak

## 4. Eragin-esparrua ITZULPENAK

### Lehentasunak (4. eragin-esparrua: itzulpenak)

#### A) Lehentasunak:

- 1.- Udaleko zerbitzu desberdinekin eta bereziki Idazkaritzarekin elkarlanean arituz, udalaren idazki administratiboetako testuak eguneratu, bateratu eta, euskarazko nahiz gaztelaniazko edukiak berridaztea, hizkuntzaren kalitate eta komunikagarritasun irizpideei jarraiki.
- 2.- Administrazio prozeduraren barruan, erabili beharreko idatzi eredu normalizatuak euskaraz erabiltzeko laguntza eskaintzea udal langileei.
- 3.- Udalaren barne harreman idatzietan euskara hutsean lan egiteko irizpidea ezarri ahala, euskaratik gaztelaniara egin beharreko itzulpenak egiteko baliabideak aurreikustea (udal barneko idazkietan nahiz kanpora bidali beharrekoetan).
- 4.- Euskaratik gaztelaniara egindako itzulpen eta zuzenketa kopuruak jaistea.
- 5.- Gaztelania hutsean egon eta hedapen maila zabala dutelako, lehentasunezkoak diren testu eta edukien itzulpena egitea (IRARGI ondare dokumentalerako edukiak adibidez).
- 6.- Udal espedienteak osatu eta IZFEren aplikazio telematikokoan bitartez kudeatzerakoan, udal zerbitzu guztiek euskara erabili ahal izateko orain dauden hutsuneak atzeman, kontzeptu eta terminoak euskaratu eta horien zabalpen lana egitea.

### Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
4.1.- Garai bateko itzulpenen komunikazio-kalitatea hobetu	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aztertutako dokumentu kopurua</li> <li>• Eguneratutako dokumentu kopurua</li> <li>• Aztertutako dokumentuekiko, eguneratu eta egokitu direnen %</li> </ul>
4.2.- Eguneratutako dokumentuak ezagutzera eman. Langile guztien esku jarri.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eguneratutako dokumentuetatik erabiltzen direnen %</li> </ul>

### Normalizazio ekintzak (4. eragin-esparrua: itzulpenak)

22. Normalizazio-ekintza: Garai batean itzultako erabilera-maila handiko dokumentu elebidunak aztertu eta txukundu, baita aplikazioetan daudenak ere.
23. Normalizazio-ekintza: Idazki-ereduak moldatu, zuzenagoak, ulergarriagoak eta erakargarriagoak izan daitezen.
24. Normalizazio-ekintza: Eguneratutako dokumentuak ezagutzera eman. Langile guztien esku jarri.

### 3.6.6. Langileen prestakuntza orokorra

## 5. Eragin-esparrua → LANGILEEN PRESTAKUNTZA OROKORRA

### Abiapuntuko egoera eta lehentasunak (5. eragin-esparrua: langileen prestakuntza orokorra)

#### A) Abiapuntuko egoera:

- Gero eta neurri handiagoan, udaleko lan hizkuntza euskara izan dadin, bertako langileek jasotzen duten prestakuntzan euskara erabiltzeak badu bere garrantzia. Udalak berak ez baizik eta kanpoko erakundeek antolatutako prestakuntza saioak izan ohi dira eta oro har, gaztelaniaz eskaintzen dira ikastaro horiek.

#### B) Lehentasunak:

- Udaleko Pertsonal sailetik, langileen prestakuntza ikastaroetan euskararen presentzia areagotzeko gestioak egitea, erakunde antolatzaileen aurrean eta baita udal langileei begira ere.

### Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
5.1.- Langileen prestakuntza orokorrean euskararen erabilera areagotu	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Azken hamabi hilabeteetan euskaraz egiteko aukera eskaintako lan prestakuntzarako saio edo ikastaroen ehunekoa: % 52,5</li> <li>• Azken hamabi hilabeteetan langileek parte hartutako erakunde beraren prestakuntza ikastaroetako hizkuntza: % 32,2 eusk.</li> </ul>

### Normalizazio ekintzak (5. eragin-esparrua: langileen prestakuntza orokorra)

25. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu langileen prestakuntza orokorrerako, eta betetzen direla bermatu.

### 3.6.7. Tresna eta aplikazio informatikoak

## 6. Eragin-esparrua TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

### Abiapuntuko egoera eta lehentasunak (6. eragin-esparrua: tresna eta aplikazio informatikoak)

#### A) Abiapuntuko egoera:

- Lanerako oinarrizko tresnak ere euskaraz erabiltzeko prest izatea lortu nahi da. Horri begira, udaleko ordenagailuetako programak euskaraz instalatuta izatea lortu nahi da batetik, eta bestetik berriz, udalean langileek sarri erabiltzen dituzten internet bidezko aplikazio telematikoen euskarazko erabilera sustatzea.
- Lanerako erabilienak diren aplikazio informatikoen (sistema eragilea, ofimatika, IZFEren aplikazioak...) euskarazko bertsioak instalatu eta erabiltzeko aukera udal zerbitzu guztiei gogoraraztea ere komenigarria da.
- Espedienteen kudeaketarako erabiltzen den aplikazioaren erabilerarako, udal zerbitzu guztientzako hizkuntza irizpideak ezarri eta hizkuntza prozedura bateratu beharra aurreikusten da.

#### B) Lehentasunak:

- 1.- Udal espedienteen kudeaketarako udal zerbitzu gehienek erabiltzen duten IZFEren aplikazio telematikoa euskaraz erabili eta elikatzeko neurriak ezartzea.
- 2.- Gainerako tresna eta aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzeko aukerak eskaini.

### Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
6.1.- Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera gehitu	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aplikazio eta programak guztira:</li> <li>• Euskaraz erabilgarri dauden aplikazio eta programak:</li> <li>• Euskaraz erabilgarri dauden aplikazio eta programak zenbat lanpostutan instalatuta % 65,0</li> </ul>

### Normalizazio ekintzak (6. eragin-esparrua: tresna eta aplikazio informatikoak)

26. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu tresna eta aplikazio informatikoetan (batez ere aplikazio edo programa informatiko berrietarako) eta neurriak hartu betetzen direla bermatzeko.
27. Normalizazio-ekintza: Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean: tresna eta aplikazio informatikoen inguruko Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko, horien betetzea bultzatzeko, euskarazko bertsioa erabiltzeko...
28. Normalizazio-ekintza: Euskaraz jarri daitezkeen programa eta aplikazio informatikoak hautatu eta euskarara egokitu.

### 3.6.8. Internet eta intranet sareak

## 7. Eragin-esparrua INTERNET ETA INTRANET SAREAK

### Abiapuntuko egoera eta lehentasunak (7. eragin-esparrua: interneta eta intranet sareak)

#### A) Abiapuntuko egoera:

- Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen ditu Udalak interneteko barne eta kanpo sareetako edukietan.
- Hizkuntza batean eta bestean egindako kontsulta kopuruari buruzko daturik ez dago.

#### B) Lehentasunak:

- 1.- Udal barneko intranet sarean udal langileentzako informazioa eta dokumentazioa euskaraz egotea.
- 2.- [www.hondarribia.org](http://www.hondarribia.org) orrialdeko eduki guztiak eta udalaren menpeko erakundeek direnetakoak ere euskaraz egotea bermatzea.

### Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
7.1.- Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera gehitu	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Web orrietako edukiak euskaraz % 100</li> <li>• Web orrira egindako bisitak euskaraz %</li> </ul>
7.2.- Web orrietan euskararen presentzia gehitu, komunikagarritasuna zainduta	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Intranet sareko edukiak euskaraz % 100</li> <li>• Intranetera egin diren sarrerak euskaraz %</li> </ul>

### Normalizazio ekintzak (7. eragin-esparrua: interneta eta intranet sareak)

29. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak definitu Intranet eta Internet sarean zintzilikatzen diren edukietan eta neurriak hartu horiek betetzen direla bermatzeko.

### 3.6.9. Argitalpenak

## 8. Eragin-esparrua → ARGITALPENAK

### Abiapuntuko egoera eta lehentasunak (8. eragin-esparrua: argitalpenak)

#### A) Abiapuntuko egoera:

- Udalaren argitalpenak guztiz elebidunak dira, eta euskara hutsezkoak zenbait kasutan.

#### B) Lehentasunak:

##### 1.- Orain arteko hizkuntza irizpideei jarraipena ematea:

- Irizpide orokor modura, Udalaren bando, buletin, araudi, ordenantza, ebazpen, aldizkari, liburu eta zabalkunderako argitalpen oro, bi hizkuntza ofizialetan argitaratzea.
- Ezagutzera ematen denaren jasotzailearen berezitasunek hala eskatzen badute, euskara hutsezko bertsioak egitea.

### Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
8.1.- Argitalpenetan euskararen presentzia gehitu	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Argitaratzen diren aldizkari, liburu, katalogo, DVD... kopurua</li> <li>• Euskaraz argitaratzen direnak: % 50</li> <li>• Bi hizkuntza ofizialetan argitaratzen direnak: % 50</li> </ul>

### Normalizazio ekintzak (8. eragin-esparrua: argitalpenak)

30. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu edozein euskarritako argitalpenetarako, eta betetzen direla bermatu.

31. Normalizazio-hizkuntza: Argitalpenetako hizkera argia, zuzena, egokia eta erakargarria izatea sustatu.

### 3.6.10. Hizkuntza paisaia

## 9. Eragin-esparrua HIZKUNTZA PAISAIA (ERROTULAZIOA ETA NOIZBEHINKAKO OHARRAK)

### Abiapuntuko egoera eta lehentasunak (9. eragin-esparrua: hizkuntza paisaia)

#### A) Abiapuntuko egoera:

- Udal bulego eta instalazioetako errotulazio iraunkorra ele bietan dago eta herriko toponimia eta izendegia ere euskaraz dago.
- Euskararen erabateko presentzia ez da ziurtatzen herri lanetan jartzen diren aldi bateko errotuluetan, udal instalazioetan erakunde pribatuek ezartzen dituzten publizitate euskarrietan eta udal bulegoetako tresnerian.

#### B) Lehentasunak:

- 1.- Hondarribia udalerriko euskarazko nomenklatura eta toponimia ofiziala erabiltzea herrian ipintzen diren kale, errepide, auzo eta toki izenetan.
- 2.- Herri lanetan ezarritako aldi baterako seinale eta errotuluetan, euskararen erabilera ziurtatzeko neurriak hartzea.
- 3.- Euskararen kalitatezko presentzia bermatu, noizbehinka egiten diren feria, azoka edota merkatuetako kartel, ohar eta informazio-orrietan.
- 4.- Udal instalazioetan enpresa pribatuek ipinitako iragarkietan euskararen erabilera ziurtatzea.

### Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
9.1.- Erakunde barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia gehitu	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eraikinetako errotulazio orokorreko hizkuntza % 100 biak</li> <li>• Irudi korporatiboko elementuetako hizkuntza % 70 biak</li> </ul>
9.2.- Administrazioaren eraginpeko bide-seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitu, komunikagarritasuna zainduta	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bide seinaleetan euskararen erabilera % 70</li> <li>• Herriko izendegian (toponimia, kale eta baserri izendegia) eusk. erabilera % 90</li> </ul>

### Normalizazio ekintzak (9. eragin-esparrua: hizkuntza paisaia)

32. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu eta betetzen direla bermatu hizkuntza-paisaiaren arloan (noiz ele biz, noiz euskara hutsean...)
33. Normalizazio-ekintza: Administrazioaren eraginpeko bide-seinaleak euskaraz jartzeko prozedurak zehaztu, kasuan kasuko arduradunarekin batera.
34. Normalizazio-ekintza: Euskararen presentzia bermatu herriko obretan.
35. Normalizazio-ekintza: Euskararen kalitatezko presentzia bermatu noizbehinka egiten diren feria, azoka edota merkatuetako kartel, ohar eta informazio-orrietan, bereziki, zaindu haur eta gazteentzako guneak eta idatziak.



### 3.6.11. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak

## 10. Eragin-esparrua → IRAGARKIAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

### Abiapuntuko egoera eta lehentasunak (10. eragin-esparrua: iragarkiak, publizitatea eta kanpainak)

#### A) Abiapuntuko egoera:

- Udalaren publizitate, iragarki eta kanpainetan bi hizkuntzen erabilera bermatzen da eta hala ez denean euskara hutsezko euskarriak erabili ohi dira.
- Nahiz eta Udalak prentsa-oharretako idazkiak euskaraz eta gaztelaniaz prestatzen dituen, hedabide batzuek nagusiki gaztelania aukeratzen dute Hondarribiko Udalaren berriak ematerakoan.

#### B) Lehentasunak:

- 1.- Komunikabideetara bidaltzen diren udalaren ohar eta informazioak, euskaraz eta gaztelaniaz igorri ondoren, informazio horien berri euskaraz edo bi hizkuntzetan eman dezaten komunikabideei eskatzea.
- 2.- Udalak egiten dituen komunikazio kanpainetarako mezu eta esloganetan, euskarazko sorkuntza ziurtatzea eta euskarari lehentasuna ematea.
- 3.- Udalaren iragarpenak, euskarazko hedabideetara euskara hutsean bidaltzea.

### Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
10.1.- Iragarki, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia gehitu, komunikagarritasuna zainduta	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prentsa oharretan hizkuntza: % 50 eusk.</li> <li>• Hedabideetan iragarkiak, publizitatea eta albisteen hizkuntza: % 30,0 eusk., eta % 20,0 biak</li> <li>• Iragarki taulan hizkuntza: % 80 biak</li> <li>• Megafonian hizkuntza: % 70 biak</li> <li>• Erantzungailuan hizkuntza % 30 eusk.</li> </ul>

### Normalizazio ekintzak (10. eragin-esparrua: iragarkiak, publizitatea eta kanpainak)

36. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu eta betetzen direla bermatu iragarki, publizitate eta kanpainetan.
37. Normalizazio-ekintza: Euskara argi, zuzen, egoki eta erakargarria erabili.

### 3.6.12. Diru-laguntzak

## 11. Eragin-esparrua → DIRU-LAGUNTZAK

### Abiapuntuko egoera eta lehentasunak (11. eragin-esparrua: diru-laguntzak)

#### A) Abiapuntuko egoera:

- Udalaren diru-laguntza lerro gehienetan hizkuntza irizpideak ezarriak daude eta gutxieneko jarraipen lan bat ere egiten du udal zerbitzu bakoitzak. Ondorioz, udalaren diru-laguntzak jasotzen dituzten talde, elkarte nahiz sozietateei, hainbat hizkuntza irizpide betetzeko beharra ezartzen zaie eta eragile horiek antolatutako ekintza kultural, sozial eta aisialdiko guztietan euskarari lehentasunezko tokia emango zaiola aitortzen zaio herritarrari.
- Edonola ere, hizkuntza irizpideak gehiago zehaztu eta jarraipen lan estuago bat egiteko prozedura zehaztu beharra aurreikusten da.

#### B) Lehentasunak:

- 1.- Udalak diruz lagundutako jardueretan ziurtatu beharreko hizkuntza irizpideen betetze-maila hobetzea, eta horretarako, irizpideen zehaztapen argiagoa egitea, irizpide horiek udal zerbitzu guztietara zabaltzea eta diru-laguntzak esleitu ondorenean hizkuntza erabileraren jarraipena egiteko prozedura zehaztea.

### Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
11.1.- Diru-laguntzak esleitzerakoan, hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diru-laguntzetan, hizkuntza irizpideen txertatze maila: % 70</li> <li>• Diru-laguntzak esleitzerakoan, hizkuntza irizpideak betetzen dira: % 50</li> <li>• Diru-laguntzak esleitu ondoren, hizkuntza irizpideen ezarpenari jarraipena egin zaio: % 50</li> </ul>

### Normalizazio ekintzak (11. eragin-esparrua: diru-laguntzak)

38. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu diru-laguntzen arloan eta betetzen direla bermatu. Ondoko esparru hauei begira, gutxienez: enpresa-mundua; aisi-talde, kirol talde, kultur elkarte, komunikabide, hizkuntza-paisaia (administrazio barruko esparrua, merkataritza, ostalaritza, teknologia berriak...).
39. Normalizazio-ekintza: Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean erakundeak diru-laguntzen arloan ezarri dituen hizkuntza-irizpideei buruz.

### 3.6.13. Kontratazio administratiboak

## 12. Eragin-esparrua KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOAK

### Abiapuntuko egoera eta lehentasunak (12. eragin-esparrua: kontratazio administratiboak)

#### A) Abiapuntuko egoera:

- Jendaurrekoak diren edota herritarrengan eragiten duten zerbitzu kontratazioetan badira hizkuntza irizpideak ezarriak eta horiek betetzeko ahalegina ere egiten da.
- Herritarrei zerbitzu zuzena ematen dieten kontratuetan, zerbitzua euskaraz eman ahal izateko gaitasuna, kontratua esleitzerakoan ziurtatzen da, ez ordea, kontratazioaren exekuzio fasean (kontratutako enpresako langile aldaketa eta abar).
- Kontratazio administratiboetako hizkuntza irizpideak gehiago zehaztu, orain irizpiderik ez dagoen zenbait kontratazioetarako proposatu (aholkularitza zerbitzuetako txostenak, eta abar) eta jarraipen estuago bat egin beharra ikusten da.

#### B) Lehentasunak:

- 1.- Azpi kontratazio bidez herritarrei zerbitzua (Kiroldegia, gaztetzako zerbitzuak...) ematen dieten enpresei, euskara erabiltzeko aukera berma dezaten eta euskararen erabilera lehenetsi dezaten ere exijitu.
- 2.- Kontratutako zerbitzuak udalarentzat direnean (laguntza teknikoa, aholkularitza zerbitzua eta abar), esleipedunak bere lana edo txostenak bi hizkuntza ofizialetan udalari aurkeztu beharreko kontratu-mota garrantzitsuenak zerrendatu eta kontratu horien baldintza teknikoetan bete beharreko hizkuntza irizpideak ezarri.

### Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak

Helburuak	Adierazleak
12.1.- Kontratazioaren fase guztietan hizkuntza baldintzak betetzen direla bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontratazioetan, hizkuntza irizpideen txertatze maila: % 70</li> <li>• Kontratazioak esleitzerakoan, hizkuntza irizpideak betetzen dira: % 50</li> <li>• Kontratazioak esleitu ondoren, hizkuntza irizpideen ezarpenari jarraipena egin zaio: % 50</li> </ul>

### Normalizazio ekintzak (12. eragin-esparrua: kontratazio administratiboak)

40. Normalizazio-ekintza: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu eta betetzen direla bermatu kontratazio administratiboan.
41. Normalizazio-ekintza: Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu erakundeko kontratazio-organismoetan, baldintza-orrietan hizkuntza-baldintzak txertatu eta bete egiten direla ziurtatzeko.
42. Normalizazio ekintza: Herritarrekiko harremana oinarri duten kontratazioetan euskarazko baliabideen eta euskal hiztunen presentzia bermatu.

### 3.7. Plangintza bi hitzetan

#### ■ Lehentasunezko helburuak

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren helburua da **Hondarribiko Udalean euskararen erabilera indartzea**, zerbitzu hizkuntza-gisa, herritarrekiko harremanetan, beste administrazioekiko harremanetan eta administrazio barneko lan-hizkuntza modura. Hirugarren ildo horretan jarri nahi du arreta Hondarribiko Udalak, hain zuzen ere, VI. Plangintzaldi honetan. **Zerbitzu-hizkuntza izateaz gainera, euskara lan-hizkuntza izan daitekeela sinetsiz**. Izan ere, udal enplegatuen hizkuntza-gaitasuna altua bada ere, gaitasun hori ez da langileen eguneroko lan-erabileran islatzen.

Udalaren barne harremanetan eragitea izango da, beraz, lehen mailako helburua. Nolanahi ere, **herritarrekikoa bermatzea**, azken urteetan zentzu horretan Hondarribiko Udalak eman dituen urratsei eustea eta **kanpo harremanetan atzeman daitezkeen zenbait hutsuneri konponbidea ematea** ere izango dira helburu.

#### ■ Euskarari lehentasuna idatzizko lanean

Lan egiteko lehen hizkuntza euskara izan dadin lortu nahi du plangintzak, **idatzizko lanean euskarari erabateko lehentasuna emanez**, horrek ahoz ere euskara gehiago erabiltzea ekarriko duelakoan.

**Udal langileek idatzizko lanean euskaraz gero eta gehiago produzitu dezaten lortzea da xedea**. Horretan zentratuko dira plangintza honetako esku-hartze estrategia nagusiak, udal zerbitzu gero eta gehiagoren idatzizko ekoizpena euskara hutsez izan dadin. Horretarako irizpideak zehaztuko dira eta **Euskara Zerbitzuak laguntza eskaini eta jarraipen lana egingo du**.

#### ■ Normalizazio-ekintza nagusiak

- Lanpostuei dagozkien **hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak eguneratzea** eta kontratazioetan hautagaien **hizkuntza-eskakizuna eta gaitasuna egiaztatzea**. Izan ere, badira dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua ez duten langileak.
- Berariazko **hizkuntza-prestakuntza eskaintzea, idatziz zailtasunak dituztenei** zuzendua. Hori baita, hain zuzen ere, langileen hutsune nabarmenena, gaitasunari dagokionez.
- **Ahozko harremanetarako irizpide argiak zehaztea**, jakinaraztea eta horien jarraipena egitea. Herritarrekiko harreran ez bezala, lan harremanetan, gaztelaniarako joera handia da.

- Herritarrari idatzizko erantzunak euskaraz jasotzeko aukera ematen zaionean, hori ziurtatzeko neurriak hartzea. Ez baita beti betetzen.
- Euskarazko udal-agiri eta inprimaki bateratuak prestatzea eta horien erabilera bultzatzea.
- Garai batean itzulitako idazki administratiboak aztertzea, eguneratzea eta berridaztea. Gaztelaniaz dauden eta lehentasunezkoak diren testuak itzultzea.
- Euskaratik gaztelaniara itzulpenak egiteko baliabideak aurreikustea.
- Langileen prestakuntza-saioetan euskararen presentzia areagotzeko gestioak egitea. Kanpoko erakundeek antolatu ohi dituzte, eta oro har gaztelaniaz izaten dira.
- Udal espedienteen kudeaketarako aplikazioa eta gainerako programak euskaraz erabili eta elikatzeke neurriak hartzea.
- Herri lanetako seinale eta errotuluetan, azoka eta merkatuetako kartel eta oharretan eta udal azpiegituretan enpresa pribatuek jartzen dituzten iragarkietan euskararen erabilera bermatzea.
- Komunikazio kanpainetan euskarazko sorkuntza ziurtatzea eta euskarari lehentasuna ematea.
- Diru-laguntzetan eta kontratazio administratiboetan hizkuntza-irizpideen jarraipen lan estuagoa egitea.

# ERANSKINAK

## Adierazleen taula: Egitura eta adierazleen kalkulurako prozedura

### 1. Ardatza Zerbitzu hizkuntza

#### 1. Erakundearen irudia

1.1. ERROTULAZIOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
1.1.1. Eraikinetako errotulazio orokorra	1.1		<p>Euskarri motak: Eraikinetan, barruan nahiz kanpoan dagoen errotulazioa: herritarren joan-etorri handieneko espazioetan dauden seinale, errotulu eta informazio euskarri orokorrak. Ohikoenak hauek dira: toki edo zerbitzuen identifikazio seinaleak, norabide seinaleak, igogailuetako ahots mezu automatikoak eta herritarrei zuzendutako informazio panel elektronikoak.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Errotulazio orokorreko elementuen hizkuntza egoeraren ehunekoak: euskara hutsez, ele bietan eta gaztelania hutsez dauden errotuluen ehunekoak.</p>				



1.2. ARGITALPENAK, PUBLIZITATEA, ALBISTEAK ETA JENDAURREKO EKITALDIAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
1.2.1. Irudi korporatiboko elementuak	1.2		<p>Euskarri motak: Gutun azalak, orri buruak, zigiluak, bisita txartelak, eta erakundeak erabiltzen dituen irudi korporatiboko bestelako euskarri eta papertegiko elementuak</p> <p>Ehunekoa kalkulatzeko prozedura: Euskara hutsean, ele bietan eta gaztelania hutsean dauden elementuen ehunekoa.</p>				
1.2.2. Erakundearen beraren papereko argitalpenak	1.3		<p>Euskarri motak: Herritar guztiengana edo publiko ahalik eta zabalenera iristeko asmoz erakundeak berak kaleratzen dituen papereko argitalpenak: udal aldizkariak, egitarauak, agendak, informazio orriak, memoriak, liburuak, eta abar.</p> <p>Ehunekoa kalkulatzeko prozedura: Proposatzen da inpaktu handieneko argitalpenetara mugatzea neurketa, ondorengo jarraibideen arabera:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1- Zabalpen maila handienekoak: herritar guztiei zabaldutakoak, edota erabilpen maila handia duten zerbitzuetako erabiltzaileei.</li> <li>2- Erakundeak maiztasun handiz kaleratzen dituen argitalpenak.</li> <li>3- Zabalpen maila eta maiztasuna kontuan izanda, erakundearen papereko bost argitalpen garrantzitsuenak zerrendatu behar dira. Kanpo komunikazioaz arduratzen den berariazko komunikazio arlo edo zerbitzu bat badago, hango arduradunen laguntzarekin erabakiko da zein diren bost argitalpen horiek.</li> <li>4- Behin erakundearen papereko bost argitalpen nagusiak identifikatuta, bost horien hizkuntza egoeraren arabera kalkulatu da adierazlea; hau da, bost elementuetatik euskara hutsean, ele bietan edo gaztelaniaz argitaratzen diren ehunekoa. Bost argitalpenei pisu bera emango zaie, zein nahi dela argitalpen bakoitzaren maiztasuna edota orrialde kopurua.</li> <li>5- Zehaztu egin behar da zein bost argitalpen hartu diren kontuan, hurrengo ebaluazioa egiten denerako erreferentzia gisa.</li> </ol>				Hizkuntza neurketa egindako bost argitalpenak



1.2. ARGITALPENAK, PUBLIZITATEA, ALBISTEAK ETA JENDAURREKO EKITALDIAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emaitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
1.2.3. Iragarkiak eta publizitatea	1.4		<p>Euskarri motak: Idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideek zein hizkuntzatan argitaratzen dituzten erakundearen iragarkiak, sustapen kanpainak edota publizitatea.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Identifikatu erakundeak bere iragarkiak jartzen dituen hedabideak (bost gehienez), eta publizitatea argitaratzeko hizkuntza neurtu. Bost hedabideei pisu bera emango zaie, zein nahi dela argitalpen bakoitzaren maiztasuna edota orrialde kopurua.</p>				Hizkuntza neurketa egindako bost hedabideak
1.2.4. Erakundeari buruzko albisteak	1.5		<p>Euskarri motak: Idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideek zein hizkuntzatan argitaratzen dituzten erakundeari buruzko berriak.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Erakundeari buruzko berriak ematen dituzten hedabide nagusiak hartu (bost gehienez), eta erabilitako hizkuntzaren arabera egin kalkuluak. Bost hedabideei pisu bera emango zaie.</p>				Hizkuntza neurketa egindako bost hedabideak
1.2.5. Jendaurreko ekitaldiak		4.4	<p>Komunikazio mota: Herritarrei zuzendutako bilera edota aurkezpen irekietan erabilitako hizkuntza.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Adierazlea kalkulatzeko, kontuan hartuko dira herritarrekiko bilera eta aurkezpenetan parte hartzen duten langileen erantzunak.</p>				



1.3. INGURUNE DIGITALA	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea				Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Eraitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	
1.3.1. Webguneak eta zerbitzu telematikoak	1.6		<p>Euskarri motak: Erakundearen webguneko atal finkoak eta dinamikoak, eta Internet bidez herritarrei eskainitako zerbitzu telematikoak.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: Euskarri digital horiek zein hizkuntzatan kontsulta edo erabil daitezkeen, kontuan hartu gabe herritarrek hizkuntza batean edo bestean egindako erabilpena.</p>				Hizkuntza neurrketa egindako esparru digitala
1.3.2. Sare sozialak eta aplikazio digitalak	1.7		<p>Euskarri motak: Erakundearen sare sozialak eta herritarrekin komunikatzeko erakundearen beraren aplikazio telematikoak.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: Erakundeak zein hizkuntza erabiltzen dituen euskarri horietan, kontuan hartu gabe herritarren erabilera.</p>				Hizkuntza neurrketa egindako esparru digitala

## 2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) edo herritarrekiko harremanak

2.1. BEZERO EDO HERRITARREKIKO IDATZIZKO HARREMANAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emaitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
2.1.1. Herritarrek erakundera bidalitako idatziak eta aurkeztutako idatzizko eskaerak		6.2	<p>Komunikazio mota: Herritarrek zein hizkuntzatan aurkezten dituzten erakundera igorritako idatziak: gutunak, erreklamazioak, eskaera orriak, agiri telematikoak, mezu elektronikoak...</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. Galdera honi ez diote erantzungo herritarrek aurkeztutako idatziak irakurri beharrik ez duten langileek.</p>				
2.1.2. Erakundeak herritarrei bidalitako idatzizko komunikazio ofizialak		6.4	<p>Komunikazio mota: Herritarrei zein hizkuntzatan iristen zaizkien dokumentu edo idazki ofizialak, bai langileak berak sortuak, bai beste norbaitek itzuliak.</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. Galdera honi ez diote erantzungo herritarrentzako dokumentu edo idazki ofizialik idatzi behar ez duten langileek.</p>				
2.1.3. Azken hamabi hilabeteetan herritarrek erakundearen aurkeztutako eskaerak	2.1.b		<p>Komunikazio mota: Herritarrek erakundera idatziz aurkeztutako eskaeretan erabilitako hizkuntza.</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Herritarrek aurkeztutako idazkien hizkuntzaren jarraipena egiteko erakundeak modu sistematikoan jasotzen duen informazioa; adibidez, erakundearen erregistroan sarrera emandako idazkien hizkuntzaren datuak. Hasiera batean, azken hamabi hilabetei dagozkien datuak, ehunekotan. Epe horretan aurkeztutako idatziak 50 baino gutxiago izanez gero, azken 50ak aztertuko dira.</p>				



UDALA

	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza (%)		
				Euskaraz	Ele bietan	
2.1.4. Herritarrek euskaraz egindako eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza		6.5	Komunikazio mota: Zein hizkuntzatan erantzuten zaien herritarrek erakundera euskaraz aurkeztutako idatziei, bai langileak berak euskaraz sortuta, bai beste norbaitek itzulita. Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. Galdera honi ez diote erantzungo herritarrentzako dokumentu eta idazki ofizialik idatzi behar ez duten langileek.			
2.1.5. Azken hamabi hilabeteetan herritarrek erakundera euskaraz aurkeztutako eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza	2.2.b		Komunikazio mota: Zein hizkuntza erabili den herritarrek erakundearen euskaraz aurkeztutako idatzizko eskaerei erantzuteko. Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Herritarrek aurkeztutako idazkien hizkuntzaren jarraipena egiteko erakundeak modu sistematikoan jasotzen duen informazioa; adibidez, erakundearen erregistroan irteera emandako idazkien hizkuntzaren datuak. Azken hamabi hilabetei dagozkien datuak, ehunekotan. Epe horretan aurkeztutako idatziak 50 baino gutxiago izanez gero, azken 50ak aztertuko dira.			
2.2. BEZERO EDO HERRITARREKIKO AHOZKO HARREMANAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza (%)		
2.2.1. Telefono bidezko herritarren harrera zerbitzurako langileek erabilitako hasierako hizkuntza		1.2	Komunikazio mota: Langilearen eta herritarren arteko harreman hizkuntza neurtuko da, baina harrerakoa bakarrik: langileak hasieran zein hizkuntza erabiltzen duen herritarra telefonoz agurtzean.  Ehunekoa kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoa; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoa. Galdera honi ez diote erantzungo herritarrekin telefonoz harremanik ez duten langileek.			

	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea		Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emaitza (%)	
2.2.2. Herritarren aurrez aurreko harrera zerbitzurako langileek erabilitako hasierako hizkuntza		3.2	<p>Komunikazio mota: Langilearen eta herritarren arteko harreman hizkuntza neurtuko da, baina harrerakoa bakarrik: langileak hasieran zein hizkuntza erabiltzen duen herritarra aurrez aurre agurtzean.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Galdera honi ez diote erantzungo herritarrekin aurrez aurreko harremanik ez duten langileek.</p>		
2.2.3. Herritarrek erakundearekin komunikatzerakoan telefonoz erabilitako hasierako hizkuntza		1.3	<p>Komunikazio mota: Neurtuko da langilearen eta herritarren arteko telefono bidezko harremanean herritarrek zein hizkuntzatan egiten dioten langileari; alegia, zein den herritarrek hasieran erabiltzen duten hizkuntza.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Galdera honi ez diote erantzungo herritarrekin telefonoz harremanik ez duten langileek.</p>		
